

hiruka

169. zenbakia

2021eko martxoa



ALBE

40 urte hitzak josten

Zure gustuko
ikasketak euskaraz
eta etxetik gertu

Bizkaian euskaraz eskaintzen diren Batxilergo zein Lanbide Heziketako ikasketak klik batean.

Euskara curriculuma aberasteko giltza.

Unibertsitateko euskarazko ikasketak modu errazean kontsultagai.

Euskaraz ikasi eta C1 irabazi.

Zabaldu ateak lan merkatuari!

www.Nahidudalako.eus

Zure iritzia ezinbestekoa da guretzat. Sartu www.nahidudalako.eus webgunean, galdetegi bete eta **sari zoragarriak irabazi.**



1.

iPad (8th generation)
Wi-Fi 32 GB



2.

HOMEPOD
Bozgorailu inteligentea



3.

Kultura eta kirol materiala
erosteko opari txartela



Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua: Lizar Begoña
- 6 «Amatasuna, nahia ala inposizioa?»
- 14 Hizkuntzaren zalantza
- 15 Naizen elkarte
- 16 Historiaren ganbara
- 17 Zientzia etxe atarian
- 18 Hirudika: ALBEren 40 urteak gogoan
- 24 Mundukatuak: Martin Rumenov
- 25 Lehen/orain eta Uribitakora
- 26 «ALBEk bertsogintzari plazak ekarri dizkio batez ere»
- 30 «Ez dakit gasolinoagaz beste bost urtez jarraitzeko gai izango naizen»
- 31 «Ideia askeen defentsan bizia eman zuten emakumei omenaldi bat da hau»
- 32 Zinez diot eta Irakurrian
- 33 Musikhariak: Arene 6
- 34 Troka Abenturaren agurra
- 35 «Emakumeen futbolak presentzia behar du»
- 40 Hirukira Olgetan
- 42 Faceguk



«Amatasuna, nahia ala inposizioa?»



Algortako Bertsolari Eskolaren 40 urteetako ibilbidea, iruditzen



Eskualdeko bertsogintzaz, ALBEko Paule Loizaga eta Josu Landetaz



«Emakumeen futbolak presentzia behar du»

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Julen Nafarrate, Asier Barruetaña, Eunat Muruaga, Bea Sever, Iñaki Libano, Riki Mutuberria, Uxue Iriondo, Leire Zorraquin, Jokin de Pedro eta Joseba Santxo.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jasotzen du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Gure baitako mugak hautsi

UXUNE IRIONDO URBISTAZU Bilgune Feminista



Durangoko 2019ko Jardunaldi Feministetan argi sentitu genuen, besteak beste, arrazakeriaren aurkakoak ere behar zutela gure aldarri eta jarduera guztiek, feminista eta euskaltzale izateko. Emakume Abertzaleen 2020ko Topaketetan ere horretan aritu ginen buru-belarri, orduko azkura eta deserosotasuna indargarri bihurtuz.

Patriarkatua, kapitalismoa, klasismoa, kontsumismoa... erraiegaraino sartuta ditugu, eta zapalkuntza horiek betikotu gura dituen sisteman bizi gara eroso, gutxi-asko. Horregatik, norbanakook eta jendarteak gure baitan arakatu eta «istmo» horien zantzu eta aztarna guztiak aurkitu behar ditugu.

Ariketa deserosoa eta mingarria da, egin beharrekoa, ordea, konturatu eta aitortzea zenbat gauza egin eta esaten ditugun oharkabea; zer dagoen horren guztiaren azpian eta atzean; zertan oinarritzen den Euskal Herri honen, gutako askoren ongizatea; nondik eta zer eginez elikatzen diren hemengo enpresa asko, zenbat jende hiltzen ari den sorterrian, itsasoan, lurraren eta uraren defentsan, batzuen diru-gose ase ezinarenegatik; eta zenbat aitzakia bilatzen ditugun denok beste alde batera begiratzeko, gure ardurari muzin egiteko.

Zutabe hau zuretzat, Lolita Chávez Ixcaquic maitea!

Borroka esanahiz bete

LEIRE ZORRAQUIN Sutea talde feminista



Azken urteetan feminismoa modan dagoen zerbait bihurtu da, esanahiaz hustuz. Hausnarketa sakona egin beharko genuke feministatzat hartzen garenok; gure diskurtsoaren eta gure ekintzen arteko hutsunea aztertu. Zaintzen lanaren arazoa ez da manifestazio batean konponduko, ezta indarkeria matxista, ezta kristalezko sabaia, ezta beste ezer ere. Agian kamiseta gutxiago eta militantzia gehiago izan daiteke erantzuna, militantziari ere buelta pare bat emanda.

Norberak jakingo du, baina gauza bat ziurra da: ez kapitalismoak, ezta patriarkatuak ere, ez dute amore emango; guk ere ez guke gutxiago egin behar. Gogotik lan eginda irabaziko dugu pultsua, eta helburua izan behar du borrokak, hori argi ez badaukagu bidean galtzeka eta arrazoibide hutsak defendatzeko arriskua dugu.

Aurten ere kalera ateratzeko deia egin nahiko nuke, arretaz eta osasun-arauak betez. Osasun-krisian ekitaldiak egiten jarraitu da, besteak beste, mobilizazioak, tartean eskuinekoak. Gu atzean uzteko ahaleginak egiten ari dira, pandemiaren aitzakian etxean gera gaitezen, baina ezin diegu irabazten utzi; arazo larria izango dugu sinetsarazten badigute beste borrokak legitimoak direla eta gurea ez. Aurten ez da kontzentrazio handirik egongo, baina gure herrietara atera behar gara gure ahotsa entzun dadin.

Puntua eta kontrapuntua **Martxoak 8**

Sistemaren arrakalak

*Erraza da begira
jartzea atzera,
baina buelta gaitezen
errealitatera.
Egunero birsortzen
da sistema bera.
Beraz hartu indarrak;
bagoaz aurrera,
sistema egunero
arrakalatza.*

**MAIDER
BARAÑANO
URIBARRI**
Algorta



*Sistemak ere badu
bere arrakala:
«Emeak hala behar du
eta arrak hala»
Baina ezaba ditzagun
euren marrak, ala?
Erakusteko, nahiz ta
ez den lan makala,
denak berpentsatzeko
premia daukala.*

**JONE
URIA
ALBIZURI**
Algorta



Lizar Begoña Poema-idazlea

«Lelo hutsak baino, nahiago dut galderak plazaratu»



Lizar Begoña sopeloztarrak bere bigarren poema-liburua du labean, iaz *Aro beilegia* izeneko lana kaleratu ondoren. Bere arte-ibilbideaz arituko gara lerrootan.

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Txalet bateko jabego pribatuko lorategian / katu bat hiltzorian. / Oraindik arnasestuka dago, / eta burua mugitzen du, / 'miau' egiten du. / Pena. / Ate eta leiho guztiak itxi ditugu, / barruan wifia dugu. Poema gordin eta indartsuez jositako liburua kaleratu zuen iaz Lizar Begoña gazte sopeloztarrak. *Aro beilegia* poema-liburuagaz Donostia Kulturak eta Balea Zuriak antolatutako DK poesia lehiaketa irabazi zuen: «Inspirazioa ez dut oso urrun bilatzen. Nire egunerokotasuna, inguruan ikusten ditudan gauzak...». Berbarako, txaleta eta katuaren poema horretarako inspirazioa ere etxetik gertu topatu zuen: «Larrabasteratik Barinatxerako bidean eraiki duten guztia izan dut gogoan: txaletak, partzelak, alarmak, hesiak... *Beverly Hills* hutsa».

Askotariko gaiak lantzen ditu Begoñak bere poemetan: kulturaren egoera prekarioa, interneta, sexualitatea... «Esan didate poesia soziala egiten dudala. Izan daiteke, azken batean pertsonala ere politikoa baita, baina batik bat barruan dudana askatzeko beharra izaten dut». Hori bai, irakurlea ere du gogoan: «Hasieran sentitzen dudana horretan idazten dut, baina, gero, testuak komunikatiboki orrazten ditut irakurlearengana hurbiltzeko, poesia ere komunikazio ariketa bat baita».

Lelo hutsak baino, nahiago du gogoeta bultzatu, edo erantzunak irakurlearengan utzi: «Ez zait gustatzen egitea poema bat panfleto bat izango balitz modura, nahiago dut galdera moduko bat plazaratzea. Eta hori da nire ustez poesiak eta arteak dutena, alde bakarreko zentzutik aldentzeko aukera».

Arte Ederretan lizentziatua, bekaduna izan da BilbaoArten, arte bisualak lantzen. Baina, idazmenean ari da orain buru-belarri: «Poema-liburu berri bat daukat martxan. Mini-esperimentu batzuk egin ditut, eta aurreko ildotik jarraituko dut... hori bai, hainbat arlotan autokritika eginda». ◀

**«Amatasuna,
nahia ala
inposizioa?»**





Noraino daude baldintzatuta emakumeak seme-alabaren bat eduki edo ez edukitzeko erabakia modu askean hartzeko? Zer da ama izatea? Horretaz eta askoz gehiagoz hausnartzeko mahai-ingurua egin zuen Sorginen Alabak talde feministak Gorlizen urtarrilean. Saio horretan aurreko galderei erantzuten saiatu ziren, baita beste hainbat kontu gehiagori ere.

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO**

IRUDIAK: **HODEI TORRES** ►

Ez dira gutxi, urteak pasa ahala, amatasuna gora eta behera, horri lotuta gertukoen «gomendioak» jasotzen dituzten emakumeak. «Hobe da seme-alaba gazte izanda edukitzea», «ez zaizu amatasun sena pizten?», «arroza pasatuko zaizu!». Horrelakoak lasai-lasai botatzen dituzte askok, seme-alabarik ez edukitzeak zentzugabekeria delakoan; eta, lehenengoa izandakoan, «bigarrena noizko?», nork bere ge-neak biderkatzea obligazioa balitz bezala. Ama izan edo ez, aukera errealearen eskutik joan behar dira biak, eta, hori bermatuta, emakume bakoitzak askatasun osoz erabaki ahalko du ume bat (edo gehiago) edukitzea edo ez. Baina, noraino daude baldintzatuta hautu horiek modu librean hartzeko? Gorliz eta Plentziako Sorginen Alabak talde feministak mahai-ingurua antolatu zuen joan den urtarrilaren 23an gai honetaz eta askoz gehiagoz hausnartzeko. «Emakumeoi horren sakonki ukitzen gaituen gai bat izanda, ikuspuntu feministatik horren inguruan hausnartze-falta dagoela sentitu dugu, eta amatasunaren gaia jorratzea modu naturalean atera zen», azaldu dute.

Hausnarketari ekiteko, ama, izatez, zer den galdetu beharra dago. Horri erantzunez, Sorginen Alabak taldeko kideek aitortzen dute oso gai «konplexu eta emozionala» dela hori. «Zein da ama? Erditu duena akaso?», galdetzen dute. Kontuak horrela, gaineratu dutenez, «adoptatutako umea zaintzen duen emakumea ez litzateke, orduan, ama izango? Erregistroetan ama gisa ofizialki klasifikatuta egotea da ama izatea?». Zalantza horiek tarteko, argi dute zein den «sistema hegemonikoak» definitzen duen «amatasuna»; baina, horrez gainera, normalizatutako amaren ideiatik harago doazen moldeak ere existitzen direla azpimarratu dute. Hala, hori kontutan hartuta, emakumeen amatasun guztiak errespetatu behar direla diote talde feministakoek: «Helburua ez da amatasuna zer den jakitea. Kontzeptuen definizio itxiek horien inguruan dagoen aniztasuna eta

aberastasuna ezabatzen du; dena da konplexua eta erlatiboa, batez ere emozio eta bizipen subjektiboekin horren lotuta dauden gaitan».

Horien arabera, ama izatea sakrifizioagaz eta sufrimenduagaz lotzen da askotan gure gizartean, umeeikiko maitasunagatik mina jaso eta dena aguantatu daitekeenaren ideia erromantikoak elikatuta. Are gehiago, «erabakitako sakrifizioa sakrifizioa ez dela esan ohi da, baita bizitzan eduki dezakegun altxorrik ederrena ama izatea dela ere; gure gorputzekin bat egiteko naturak eskaini digun aukera ordezkazina». Baina, diotenez, askatasunaren galera izan ohi da prozesu horri atxikitzen zaion aldaketarik sinbolikoena. Horren harira, talde feministakoek gogoratu dute mahai-ingurua egin zutenean kideetako batek hurrengo galdera egin zuela gainontzekoei: «Akaso gara aske ama izan gabe? Zer da aske izatea?».

Gogoratu dutenez, duela gutxira arte, emakume hutsa izateagatik «inposatutako bizimodua» zen ama izatea: «Gure amamek bederrazi ume erditu eta etxearen euskarri zaintzaile bihurtzen ziren bizitza osorako». Ordea, beste bizi-eredu bat mahai-gaineratu zuten taldekoek urtarileko eztabaidan, emakume militanteena, hain zuzen ere. «Militatzen zuten emakume gehienek, bitartean, ama ez izatearen hautua egin zuten militantzia eta amatasunaren bateragarritasuna ezinezkoa zela koan». Gaur egun, aldiz, hirugarren aukera bat (beste askoren artean) ere badagoela azpimarratu dute, borrokan ibilitako emakume haiek lortutako tresna eta askatasun guztiei esker: «Egun, posible zaigu militante eta ama izatea, baita bestelako amatasun ereduak eraikitzeak aukera izan ere».

AMA IZATEAREN HAUTUA. Talde feministako kideek gogoratu dutenez, kulturalki, sistema hetero-patriarkalaren zerbitzura dagoen gizarteak bideratzen ditu emakumeak ama izatera, familia perfektuaren irudi utopikoak sortu dituen beldurrak eraikita, hala nola bakarrik gelditzearena edo arroza pasatzearena. «Are gehiago, ginekologoak berak ere, askotan, ama izatearen presioa gainjartzen digu». Horren harira, zalantzan jarri dute ama izatearen nahia, askotan inposatutakoa izan daitekeelakoan. Dena dela, uste dute hausnartzeko eta bihotzetik sentitzen duten erabakia hartzeko askatasuna daukatela, «baldintzatua bada ere». Gogoratu dutenez, «naturak eman digu aukera gure gorputzaren jabe izateko, baita ere berarekin bat egiteko eta daukan ahalmen miresgarriaz gozatzeko».

Atzera begiratzuz gero, historiari erreparatuta, gogoratu dute mendealdeko gizartea misoginoa izan dela, sistematikoki feminizidioak



Hausnarketarako kokapena

Sorginen Alabak taldekoek azpimarratu gura izan dutenez, eurek abiatutako hausnarketa ulertzeko haien buruaren kokapena kontutan hartu beharra dago: «Euskal Herri garaikideko marko kulturean hazi izan garen emakume cis (jaiotzean esleitutako sexua eta genero-nortasunagaz bat egiten dutenak) zuri pribilegiatuak gara».

erabili izan dituelako horrek arma gisa naturaren antzinako begiradak ezabatu eta horiei zilegitasuna kentzeko. «Antzina, amatasuna mundua eta zeruaren liluragarritasunaren sinboloa zen. Horren adibide argia dugu gaur egun lurrari esateko modu maitekor hau: ama-lurra. Gerora, ordea, gure gorputzen desjabetzea eta emakumearen mendekotasuna funtsezkoa izan da dominazio-sistema ezartzeko eta hura eutsiko zuen familia-eredu patriarkala eraikitzeak», deitoratu du talde feministak.

Horri lotuta, eta gaur egunera bueltatuta, azpimarratu dute ama izateko erabakia hartzerako orduan pisu handia duela bikotekidearen figurak eta horregaz eraikitako harremanak. «Ume bati bizitza eskaintzeko bizi-proiektua beste pertsona batekin elkarbanatzeak erabaki hori bihotzez hartzeraren eraman gaitzake, are gehiago bide hori gozatzeko ingurua eta ahalmen ekonomikoa dugunean». Dena dela, eredu hori aurrera eramateko beste bide batzuk ere badaudela gogoratu dute; bikotekiderik gabe: «Ama gisa senti daitekeen maitasun ordezkazina sentitzeko desioak ere eraman gaitzake konpromiso hori gure buruarekin hartzera».

ASKOTARIKO BALDINTZATZAILEAK. Historikoki, sistemak amak behar izan dituen arren, gaur egungo egoera ekonomikoa askotari-ko oztupoak jarri dizkio ama izateko hautua



hartu gura duenari. Datuei erreparatzea besterik ez dago. Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) emandako datuen arabera, jaiotzek beheranzko joera hartu dute 2010etik; berbarako, iazko hirugarren hiruilekoan, aurreko urteko aldi berean baino % 5,9 haur gutxiago jaio zen Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE). Horrez gainera, lehenengo haurra duten emakumeen adina ere handituz joan da urtez urte: gaur egun 10etik 8k 30-34 urte artekoak dira nagusi; duela 45 urte, batez beste, adina 25 urtekoa zen. Sorginen Alabak taldekoek gogoratu dutenez, gizartea aldatu da, eta orain ama izatea aukerarik «zailena» da: «Osasun-egoerak eta azken aldietako krisi-ekonomikoez orain arteko iruditegi utopikoa ezinezko bihurtu dute, eta, nolabait, eredu hori jarraitzearen beharretatik askatu gaitu».

Diotenez, gizakiak eragindako munduaren egoera tamalgarriaren eta gizartearen inposizioen ondorioz, ama ez izateko askotariko arrazoiak har ditzake edozein emakume kritikok. Hala ere, azpimarratu dute erabaki hori hartzerakoan hausnarketa oso handia egon ohi dela, «azken finean, egin behar ez zenuena ez egitearen hautua da: eskematik irtetekoa». Gizarteak, baina, halako kasuetan arinkerietara jo eta aurreiritziz josiko du ama ez izateko hautua erabaki duena, «arazo» bat izango duelakoan. Horrez gainera, Sorginen

Zaintza-lanak

«Emakumea zaintza-lanen jabe izatearen justifikazioa bortitza eta jazarlea da. Titia eman beharra bezalako justifikazioekin aitarien zaintza eza normalizatu da»

Pribilegioa

«Amatasuna ez da eskubide bat, pribilegioa baizik. Bikote heterosexual ahdunak du biderik errazena umea edukitzeko. Ama ez izatea, bestetik, eskubidea denaren borroka feministen markoan kokatzen da: abortua kasu»

Alabak taldekoek adierazi dute egoera alde-rantzizkoa izan daitekeela ere: «Inguru kritiko batean bizi bazara, feminismo erradikalaren markoan, batzuetan, ama izan nahi izatea ez da posizio erraza izaten». Era berean, mota horretako egoerak eman daitezkeela uste dute ama izateko «ezaugarriak» betetzen ez direnean ere, hala nola subjektua gazteegia edo zaharregia denean. «Kritika eta epaiketa egongo da beti, are gehiago normatik irteten den emakumea zarenean».

EMAKUME ADINA AMATASUN-EREDU. Sorginen Alabak taldeko kide feministek azpimarratu dute askotariko amatasun-ereduak daudela. Zentzu horretan, nabarmendu dute zeresan handia duela zaintzen banaketa definitzen duen etxeko egiturak; «zoritxarrez, zaintzen erantzukizuna eta pisua rol berberei atxikitzen zaie oraindik». Hori ere bizi dugun gizarteari lotuta dagoela diote: «Sistemak elikatzen duen kultura da bizi duguna; amaren zaintza perfektu eta zorrotzen aurrean, aitarien zaintza minimoak txalotzen dira».

Amatasun-ereduen artean, umea biologikoki edukitzea edo adoptatua izatea dira aukera bi. Horren harira, gai polemikoa mahai-gaineratu dute Plentzia eta Gorlizko feministek: gainpopulazioa. «Mugara heltzen ari gara, eta jaiotza-tasa murriztu beharren debateari heldu beharko diogu momenturen batean», uste dute. Horri aurre egiteko, eta munduan sufritzen dauden horrenbeste ume daudela kontutan hartuta, horiek adoptatzeko aukera dagoela aipatu dute. Baina, horretarako bideak luzeak, zorrotzak eta garestiak direla jakinda, askok aukera hori baztertu egiten dutela ondorioztatu dute. Bestalde, nork «berea» eta ez beste inorena den seme-alaba izatearen desioari lotuta, norbere geneak luzatu gura izatearen «kapritxotik» haurduntza subrogatuaren praktika datorrela deitoratu dute: «Zainduko dugun umea 'gurea' izan 'behar' dela uste dute askok. Zenbat bortizkeri eta inposizio horren hitz gutxitan».

ZAINTZA, GIZARTE OSOAREN ARDURA. Amaitzeko, baina, noren ardura da haurrak zaintzea? Galdera horri erantzun borobila eman diote feministek. Euren ustetan, orokorrean, gizarte osoak zaindu beharko lituzke umeak, bereziki horien inguru hurbilean dauden pertsona guztiek, zaintza-kolektiboa eta partekatua eraikiz. Era berean, familia normatiboa kolokan jarri eta bestelako ereduak sortzeari ekin beharko geniokeela uste dute, baita monogamiatik haragoko etxeko nukleo afektiboak sortu ere; «zaintza kolektibo feministak garatu behar dira». ◀

Getxo 2022ko aurrekontuak**Aurrekontu parte-hartzaileen lehen fasea hasi dute**

Otsailaren 25etik martxoaren 14ra bitartean garatuko da 2022ko aurrekontu parte-hartzaileen lehenengo fasea. Aurrekoetan bezala, getxoztarrek udal-eskumenekoak diren eta lurralde-oreka bermatzen duten proposamenak aurkez ditzakete. 2017tik finkatuta dagoen prozedura horretan, Getxon errolatuta dagoen 16 urtetik gorako edozein pertsonak aurkez ditzake proposamenak; Getxoberri aldizkariagaz batera banatutako formularioen bidez eta online aurkeztu daitezke, baita buzoietan ere. ◀

Getxo Tokiko merkataritza**Saldoen merkatua egingo dute Getxon martxoaren 4tik 13ra**

Urteko saldoen lehen merkatua egingo da Getxon martxoan. Helburua da tokiko merkataritza sustatzea eta merkataritza-sektoreak herritarrei eskaintzen dizkien produktu guztiak erakustea. Oraingo honetan, COVID-19ari aurre egiteko osasun-neurriak bermatzeko, merkataritza-establezimenduen barruan antolatuko dela iragarri dute arduradunek. Getxoztarrek eta bisitariek hainbat saltokitako produktuak eskuratu ahalko dituzte prezio onean. ◀

Berango Aurtengo aurrekontuak**Udalak aurrekontua handitu du etxebizitza berrien lizentziengatik**

Joan den otsailaren 25ean 2021erako aurrekontuak onartu zituen Berangoko Udalak, 11,4 milioi eurokoa, hain zuzen; iazkoa 7,6 milioi eurokoa izan zen. Gastuen partida areagotu egin da aurten, Arana, Etxebarri eta Otxabenen egingo dituzten etxetako lizentziek eragindako ekarpenengatik. Udalak adierazi du aparteko diru hori azpiegitura berriak egiteko bideratuko duela. Aipatu dituzten egitasmoen artean daude kirol instalazioen hedapena eta Kurtze auzoaren birmoldaketa, besteak beste. ◀

Getxo Lope de Vega kaleko udal-eraikinak**Datorren urtean hasiko dira Belaunaldien Arteko Zentroa egiten**

Itzubaltzeta/Romoko Lope de Vega kaleko 12 zenbakian dauden eraikinak eraitsi eta zentro berria zabalduko dute 2024ko udaberrian, 24 hilabeteko lanen ondoren.

Elkarrekin Bizkaia taldeak eskatuta, Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko foru diputatuak zenbait xehetasun eman ditu Itzubaltzeta/Romon egingo den Belaunaldien Arteko Zentroa nolakoa izango den azaltzeko. Aurreproiektuak aurreikusten duenez, Lope de Vega kaleko 12 zenbakian dauden eraikinak eraitsiko dira, eta bloke berri bat eraikiko da, sotoa, beheko solairua, lau solairu eta teilatupe bat izango dituen, gazteak eta adinekoak elkarregaz biziko diren gunez bereizita.

Azaldutakoaren arabera, adinekoentzako 100 plaza prestatuko dituzte gunez horretan, 76 banako logelatan eta 12 gela bikoitzetan; eta gazteentzako alokairuzko 40 apartamentu.

Inbertsioa 13 milioi eurokoa izango dela aurreikusi dute.

Pradalesen kalkuluen arabera, Itzubaltzeta/Romo auzoan kokatuko den, eta auzoari irekita egongo den, zentro «berritzaile eta aitzindaria» 2022ko udaberrian eraikitzen hasi ahal izango da, aurreikusitako epeei eutsiz gero; hala ere, aurretik eraikinak eraisteko proiektuak, eraikuntza-proiektua eta obrazuzendaritza lizitatu beharko dira.

Diputatuak uste du enpresa esleipenduna hiru edo lau hilabete barru has daitekeela, eta, horrek, urte honen amaieran eraiste-fasea hastea erraztuko lukeela. Hala, aurreikusitakoaren arabera, zentroa 2024ko udaberrian irekita egongo litzateke, 24 hilabeteko obraren ondoren. ◀

Getxo COVID-19aren pandemiaren ondorioak**Kultura babesik gabe dagoela salatu dute hainbat elkartek**

Udalerriko kultura babesgabetuta dagoela eta horrekiko Udalaren utziketaren salatu dute ohar baten bidez Getxoko hainbat elkartek. Kulturaren garrantzia azpimarratu dute, komunitatearen kohesiorako tresna «indartsuenetarikoa» delakoan; baina, horri babesa eta sostengua eman beharrean, kontrakoa jaso dutela deitoratu dute. Horren adibide jarri dute Torreneko aretoa-

ren itxiera, jai batzordeekiko zein beste elkarteekiko elkarriketa falta eta eremu publikoak erabiltzeko debekuak, besteak beste.

Orokorrean, Getxoko esparru kulturalaren egoera «oso zaila» dela azpimarratu dute elkarteok, eta deitoratu dute ez dutela inolako babesik ezta sostengurik jaso Udalaren partetik. Dena dela, oztopoak oztopo, herri-kultura sortzen jarraituko dutela iragarri dute sinatzaileek. ◀

Sopela Parte-hartze bidezko galdeketa



Leku-arazoak salatzen hainbat manifestazio egin dituzte gurasoek. HODEI TORRES

Zipiriñeko familiek erabaki dute Loroñon egitea eraikin berria

Ikastetxeak dituen leku-arazoak konpontzeko egin zuten galdeketa, gurasoen % 78ak Loroñon eraikin berria egitearen alde bozkatu zuten. Orain, Jaurilaritzak bozkatutakoa onartu eta lanen izapideak eman behar ditu.

Zipiriñe ikastetxeak duela hamarkada bat sufritzen dituen arazoak konpontzeko bigarren eraikin bat egitea erabaki dute gurasoek. Hala, Loroñon, ikastetxetik 300 metrora, egingo duten eraikin berrira eramango dituzte Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak.

Urtarrilaren 18tik 22ra bitartean egin zuten prozesu parte-hartzailean ikastetxeko 390 gurasok parte hartu zuten: 249 emakumek eta 141 gizonek. Horietatik, 304k (% 78) eraikin berriaren alde bozkatu zuten; aldiz, 78k (% 20) ikastetxea handitzea eskatu zuten. 8 (%2) boto zuri egon ziren.

Gurasoek proiektu biren artean aukeratu behar izan zuten galdeketa horretan: alde batetik, EAJk eraikina handitzeko proposatu zuen, Goiena kalean patioa zabalduta; bestetik, EH Bilduk planteatu zuen Lehen eta Haur Hezkuntza eraikin berri batera eramateko aukera. Gurasoek biga-

rren aukera hori babestu zuten, eta, horretan, koalizio abertzaleak proposatzen du bi solairuko eraikina egitea 110 autorako lurpeko aparkaleku batez. EH Bilduk proiektua aurkeztu zuenean adierazi zuen eraikin berria gaur egun Loroñon dagoen aparkalekuan egin zitekeela. Eredu hori erabilera publikoa duen eremu pribatua da, eta, beraz, Udalak hori erosteko aukera du.

Sopelako Udalak Ibatuz enpresa kontratatu zuen parte-hartze prozesu hori garatzeko, eta horrek egingo txosten baten arabera, gurasoek eraikin berriaren alde egin dute «konponbide integral bat delako, espazio berriak sortuko direlako eta horregaz obrek ez dutelako bizi beharko».

Orain, Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza Sailari dagokio azken erabakia onartzea. Izan ere, Jaurilaritzak oraindino ez ditu Zipiriñeren beharrak txertatu 2019/2023ko Hezkuntza Azpiegituren Planean. ◀

Barrika Etxebizitzaren areagotzea

Antolamendu plan berria onartu dute, 30 urteren ondoren

Barrikako udal-iturriek azaldutakoaren arabera, azkenengo osoko bilkuran onartu duten Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak (HAPO) 424 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du, baita 130 babes ofizialeko etxebizitza (BOE) eta 294 etxebizitza libre ere.

Barrikako Udalak onartu du HAPO berria, 30 urteren ondoren. Arduradunek azaldu dutenez, proiektu horrek udalerriari «zabaltzen eta hazten» lagunduko dio, «betiere, jasangarritasun-irizpideak beteta, eta gazteentzako etxebizitzak eta zerbitzu eskuragarriak sortuta».

Osoko bilkuran proiektua onartu ondoren, Roberto Muñoz alkateak azpimarratu du urte honetarako ezarrita zituzten helburuetako bat dela HAPO berria: «Barrikarentzat une garrantzitsua da hau. Plan orokor honen onarpenak finkatuko du norantz eraman nahi dugun gure herria. Biztanleentzat eskuragarriagoa izango den herria, zeinean zerbitzuak hobetzearen eta hazkunde jasangarriaren alde egiten dugun».

Azken izapideen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurilaritzaren onespenez ematearen faltan, aurreikusitako jarduketak udaletxe, Goierri eta Lepola eremuetan gauzatuko dira. ◀

LEIOA Pinueta berrizteko plana

Herritarrek aukeratuko dute Pinueta hobetzeko proiektua

Pinueta auzoa nola berrizteko den erabakitzeke, bertan bizi diren herritarren artean prozesu parte-hartzaile bat abiatu du Leioako Udalak. Egitasmo horretarako aurkeztu diren hamahiru proposamenak Gaztelubiden daude aztergai, martxoaren 14ra arte, eta bozketa Leioa Zabalik atariaren bidez egin daiteke.

«Pinuetan bizi direnek ezagutzen dituzte auzoaren beharrak; horregatik, beraien ustez proiektu egokiena zein den jakin gura dugu. Ondoren, bozak ideien lehiaketaren epaimahaira bideratuko ditugu; egokiena izango litzateke, horien eta auzotarren iritzia bat etortzea», azaldu zuen Iban Rodríguez Leioako alkateak ekimenaren aurkezpenean. ◀

Erudio Zerbitzu berriak**Erudioko Udalak nagusien beharrianak identifikatuko ditu**

Erudioko nagusien beharrian eta nahiak identifikatzeko helburuagaz, herriko pertsona nagusien behatoki bat sortuko du Udalak. «Horregaz, pertsona nagusien soziabilitatea eta ekintzak hobetzea bilatzen dugu», adierazi du Aitziber Oliban alkateak; gaineratu duenez, egungo pandemia-egoerak are beharrezkoagoa egiten du zerbitzu hori martxan jartzea.

Maite Perez Bilbao Gizarte Ekintza eta Garpenerako Lankidetzak ordezkariek zehaztu du herrian dauden 60 urtetik gorako 7.200 herri-tarrakaz harremanetan jarriko direla. Horiek dituzten beharrianak ezagutu eta aisialdirako jarduerak programak antolatuko dituzte. Udal-ordezkariek azpimarratu dute helburua dela bizitza aktiboagoa gura duten pertsonen ekintzak eskaintzea; isolamendua eta bakar-dade arriskuak saihestea, hain zuzen ere. Era berean, udalerrian boluntariotza-sarea osatzeko prest dauden gizon-emakumeak ere identifikatu gura dituzte, adineko pertsonen laguntza eta akonpainamendua egiteko.

EROSKETAK ETXERA. Horregaz batera, *Bizi Erudio* etxeko etxe erosketak eramateko zerbitzua eskaintzen hasiko da laster Erudioko Udala. Merkataria, ile-apaindegi eta ostalarientzako etxeko etxeko banaketa zerbitzua doan eskainiko dute zerbitzu berri horregaz. Ekimen horren bitartez, besteak beste, herriko negozioei abantaila eman gura die Udalak. Momentuz, erosketak etxera eramateko zerbitzua ekainera arte egongo da indarrean, astelehenetik barikura, 11:30etik 14:30era eta 18:00etatik 21:00etara. ◀

Leioa Herri-mugimendua**Elkarretaratzeak egin dituzte Avanzadako lanak geldiarazteko**

Avanzadan hasi dituzten lanak herriari kalte gehiago egingo diotelakoan, lanak geldiaraz dituzten eskatzeko elkarretaratzeak egin dituzte azken asteotan.

Eguenero elkarretaratzeak eta manifestazioak egiten hasi dira Leioako Bulebarrean, Avanzadako berrantolaketa-lanak geldiaraz dituzten eskatzeko. Exijitzen dute BI-637 errepideak herrian eragiten dituen zarata- eta kutsadura-arazoakaz behingoz amaitzeko.

Egin dituzten kontzentrazioetan 250 lagun inguru biltzea lortu zuten hasiera batean, baina otsaileko azken egunean egin zuten manifestazioan jendetza batu zuten. Egun honetan, martxoaren 4an, berriro kalera aterako direla jakinarazi dute deitzaileek.

«Ezabatuko duten irteera ezin bestekoa da leioztarrontzako, eta erabakia ez da batere bidezkoa, Avanzadako kalteak pairatzen ditugulako eta neurri horregaz orain ezingo dugulako ezta erabili ere egin», deitoratu du Iker Bibankok, herritarren bozeramaileak, Leioa. info atari digitalean.

Lan horietan ezabatuko duten irteerak Kandela Zubieta, San Juan,

Mendibile, Ikea mendia, Iturribide edo Lamiako auzoetara sarbidea moztuko duela salatu dute auzotarren plataformatik. «Hori kentzeak eragin oso larriak izango ditu herriarentzako, auzo horietara joan gura dutenek herri-gunetik pasa beharko direlako; kutsadura- eta zarata-arazoak areagotu egingo dira herrian», deitoratu du Bibankok, besteak beste.

Horretaz gain, herritarrek ohartarazi dute lan horiek HAPOaren (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) aldaketa nabarmena eragiten dutela; gogoratu dute, era berean, horrek aurretik egin beharreko informatze- eta eztabaida-prozesu bat eta Udalaren osoko bilkuraren onespena behar duela.

Lanak gelditu arte, eta Avanzadaren arazoagaz behingoz bukatu arte, mobilizazio gehiago egiten jarraituko dutela aurreratu du Bibankok; era berean, sinadura-bilketa bat egingo dutela iragarri du, herritarrak erabaki horren aurka daudela adierazteko. ◀



GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!



ARANTZA ETXEBARRIA
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Uribe Kosta Bilbotik Getxora

Oinez edo bizikletaz mugitzeko bulebarra eraikiko dute itsasadarrean

Bilbo, Erandio, Leioa eta Getxo lotuko dituen bulebarra eraikiko dute itsasadarren eskuinaldeko ertzean. Ibilbideak zazpi kilometroko luzera izango du, eta oinezkoentzat zein txirrindularientzat izango da. Horretaz gain, Erandio eta Barakaldo artean ibaia zeharkatuko duen zubi bat ere eraikiko dutela adierazi zuen Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusiak egitasmo horren aurkezpenean. Lanok 2024 urtearen amaieran bukatuta egotea aurreikusi dute; horretarako, 36,5 milioi euroko inbertsioa egingo dute.

Erandioko (Aitziber Oliban), Getxoko (Amaia Agirre), Leioako (Iban Rodriguez), Barakaldoko (Amaia del Campo) eta Bilbo-ko (Juan Mari Aburto) alkateakaz eta Imanol Pradales Azpiegiturako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuagaz batera joan



Lanak 2022an hasiko dituzte

Bulebarra eta zubia 2024an amaituta egongo direla jakinarazi zuten arduradunek otsailean Erandion egin zuten aurkezpenean.

den otsailean egindako aurkezpenean, Bizkaiko funtsezko proiektua dela azpimarratu zuen Rementeriak. Halaber, egitasmoak 600.000 biztanle ingururen mugikortasuna hobetuko duela adierazi zuen.

Lanak 2022ko bigarren erdian hasiko dituztela iragarri dute, oraindino zubiaren eta bulebarraren ezaugarriak eta trazadurak definitzen ari baitira. Momentuz, bulebarrak ahalik eta zabalera handiena izango duela eta oinezkoentzako zein bizikletentzako eremu bereziak izango dituela aurreratu dute.

Bulebarra egiteko aurreikusi duten inbertsioa 20 milioi eurokoa da, eta zubia egiteko, aldiz, 16,5 milioi eurokoa. Azken horren egitura mugikorra izango da, itsasadarrean nabigatzen duten ontziak azpitik pasatu ahal izateko; bestalde, oinezkoentzako eta bizikletentzako izango dela zehaztu dute. ◀



MARTXOAREN 9TIK 28RA



**WWW.
LORALDIA.EUS**

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR

FESTIBALA 2021

SORMENARI ZOR!



* SARRERAK ESKURATU



BABESLEAK

Bilbao

Bizkaia

Euskadi, mugitzen

LABORAL KUTXA

Hizkuntzaren zalantzategia Eunate Muruaga

Goizez/Goizean etorriko da



Oraingoan -z instrumentalaren zenbait erabilera oker ikusiko dugu. Azken boladan, asko ugalduta instrumentalaren erabilera komunikabideetan eta administrazioan; hau da, hainbatetan erabili beharko ez litzatekeen tokietara hedatu da Euskaltzaindiaren iritziz. Noiz eta nola erabili, baina?

Erabilerak oker nabarmenenak ematen dira NON/NOIZ eta ZEREZ/NOLA kasuak nahastu egiten direlako. Baina bada aldea bien artean: NON/NOIZ kasuak modu edo denbora zehatza adierazten du; ZEREZ/NOLA kasuak, ordea, ez du batere zehaztasunik azaltzen. Azter ditzagun atalka.

Modua adierazten denean, zuzenak dira ondorengoak eta horien antzekoak: *Oinez egin dut eskolarako bidea / Trenez joan gara herrira / Eskuz ari dira pilotan jokatzeko...* Ondorioz, adibideetan eman ditugun aditzondoak kasu instrumental mugagabeak doaz, zehaztasunik gabe. Moduzko aditzondoak dira; modu errazean esanda, NOLA galderari erantzuten diote. Hala ere, batzuetan horien antzera erabili izan dira izen sintagma batzuk: **Zazpietako trenez joan gara herrira / *Euskara batuaz ari dira / *Bere autoz joan nahi du...* Horiek, osterak, oker erabilitakoak dira. Izan ere, era horretako adizlagunak mugatuak eta zehaztuak dira, ondorioz, mugatzailea eskatzen dute, eta NON galderari erantzunda joango dira; inesiboan, alegia: *Zazpietako trenEAN joan gara herrira / Euskara batuAN ari dira / Bere autoAN joan nahi du...*

Denbora adieraztean ere antzeko zerbaitek gertatzen da. Badira denbora adierazteko

Egunen eta hilen izenak ez dira mugagabeak erabiltzen: **igandez, *astelehenez, *martxoan...* Horiekin NON kasuaren forma mugatua erabiltzen da: *igandeAN, asteleheneAN, martxoAN...*

aditzondoak, eta moduzkoekin gertatzen den bezala, instrumentalaren bidez ematen dira, ez baitute zehaztasunik adierazten: *egunez, gauez, garaiz...* Dena dela, egunen eta hilen izenak ez dira mugagabeak erabiltzen: **igandez, *astelehenez, *martxoan...* Horiekin NON kasuaren forma mugatua erabiltzen da: *igandeAN, asteleheneAN, martxoAN...* Gauza bera gertatzen da *arratsaldean* eta *goizez* bezalako denbora adierazpenekin. Berez, tradizioan oinarrituta *arratsaldean* eta *goizean* erabili dira. Hala ere, puntu honek azalpen sakonagoa behar duelakoan nago. Printzipioz, desberdindu behar dira: *goizez* mugagabea da, zehaztu gabea; eta *goizean*, aldiz, mugatua, zehaztua. Hortaz, *goizez lan egin du* eta *goizean lan egin du* esaldien artean aldea dago. Lehenengoaren kasuan, adibidez, demagun txandaka lan egiten duela, eta aste honetan goizez lan egin duela. Inespezifikoa da, ez du ezer mugatzen. Bigarrenean, berriz, goizean lan egin du eta *arratsaldean* zinemara joan da. Espezifikoa da eta eguneko une jakin bati egiten dio erreferentzia.

Horiez gain, badira instrumentalaren erabilera oker gehiago, baina hurrengo baterako utzi beharko ditugu. ◀



MARTXOAK 4 - 24
Nafar hegoaldeko uztia eskutik eskura

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra -5 litroka- eta arroza, pasta eta kontserbak -12 ontzika- euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

errigora.eus



Plateretik baratzera

Naizen adingabeko transexualen familien elkartea Bea Sever

Direna izan ahal izateko istorioak



Gai batzuen inguruan dagoen ezjakintasuna baliatuz, gezurren bidez beldurra zabaltzea erraza da. Transexualitateari buruz zer dakizu? Hainbat haur transexualen familiek prozesua zelan bizi izan duten ezagutzeko aukera duzu *Tránsitos* liburuari esker.

Espainiar Estatuko Trans legea gora eta behera ibili den aspaldi honetan ikusi dugu zelan, berriz ere, interes politikoak gailentzen diren gizabanakoen eskubideen ginetik. Eta interes horiek lortzeko –kasu honetan feminismoaren kontrola, agian– gezurrak zabaltzea izan da aukeratutako bidea, beldurra hedatzeko asmoz.

Ez da teknika berria, ezjakintasuna dagoenean erraza izaten da gezurrezko zurrumurruak lau haizetara botatzea eta, horren bidez, beldurra han eta hemen hedatzea. Ezaguna dugu estrategia, beste gai batzuekin zelan erabiltzen zen ikusi dugulako. Getxon bertan, hain zuzen ere, etorkinen aurkako zurrumurruak aurre egiteko ekintzak eta kanpainak burutu izan dira, eta egiten ari dira. Egiaztatutako datuak izatea eta lehen eskuko testigantzak ezagutzea baliabiderik egokienak izaten dira gezurren bidez sortutako ikarak uxatzeko.

Helburu horrekin, besteak beste, sortu zen *Tránsitos* liburua. Jaiotzean sexua oker esleitu zitzairen haur eta gaztetxoek gurasoek idatzitako 25 istorio biltzen ditu liburuak, tartean Uribe Kostako familia batzuen. Guraso horien kontakizunen bitartez, tarte batean euren azalean jarri ahal izango gara, eta gauza asko ulertu. 25 bizipen horiek begirada aldatzeko



aukera eskaintzen digute. Emozioz eta sentipenez betetako kontak dira; nahiak, ausardia eta indarra biltzen dituztenak; beldurrak, ukapenak eta sufrimendua ere bai. Isuritako malako askoren testigantzak hurbiltzen dizkigute, minak, amorruak eta tristurak sortutako malakoak, baina baita alaitasunak eta itxaropenak sortutakoak ere. Istorio hauek onarpenari buruz hitz egiten digute, elkartasunari buruz, maitasunari buruz. Baina, batez ere, benetan direna izan ahal izateko haur eta gazte horiek egindako borrokari buruz ari zaizkigu.

Adibide moduan, liburutik euskaratutako ama baten pasarte hau: «Baina Aritz, ea! Zuk mutilen arropa jantzi nahi duzu eta mutilen modura moztu ilea, edo mutila izan nahi duzu?» Eta pixka bat haserre erantzun zidan: «Ez dut mutila izan nahi, mutila naiz!». Edo aita batek idatzi duen beste hau: *Gauetan bere sufrimendu erraldoia azaleratzen zuen. «Hil nahi dut», errepikatzen zuen behin eta berriro atsekabez beteriko negar lazgarrian. Sarritan esaten zidan: «Aita, maite banazu, sukaldetik labana hartu eta hil nazazu». Jasanezina zen, eustezi-na. (...) oso txikia bazen ere, suizidioaren drama gure gain sentitzen genuen. Horren inguruan gehiago jakin nahi baduzu, irakurri *Tránsitos* liburua.* ◀

ibilaldiaren denda



www.ibilaldia.eus/online-denda

Sartu, ikusi, erosi. Etxera bidaliko dizkizuegu aukeratutako produktuak



Historiaren ganbara Iñaki Libano

Barrika, Uribe Kostako Historiaurrearen oinarria



Smithsonianeko Historia Naturaleko Museo Nazionalaren zuzendaria den William Fitzhugh aditua Barrikan egon zen 2017an. Bertoko askotariko aztarnategiez jardun ginen biok, eta, bere esanetan, inguruok interes handia dute Behe Paleolitotik Neolitara arteko historia ezagutzeko.

Albistea prentsan zabaldu eta argitaratu bazen ere, gure Historiaurreko aztarnategiek nazioarteko esparru zientifikoan duten interesa eta balorazioa aztertu behar dugu. «Uribe Kostak altxor arkeologikoak gordetzen ditu, Iberiar penintsulako aire zabaleko gune arkeologiko garrantzitsuena bihurtu dutenak». Lehen begiratuan harroputza eta gehiegizkoa izan daitekeen baieztapen hori egiaztatu da nazioarteko zientzia-zirkuluetan.

William Fitzhugh AEBetako Smithsonianeko Historia Naturaleko Museo Nazionalaren zuzendaria da, Artikoko eta Kanadako iparraldeko, eta Alaskako eta Siberiako antzinako kulturetako biztanleak ikertu ditu, eta «euskaldunen eta inuiten» arteko harremanari buruzko hipotesiak garatu ditu; ondorioz, oso interesatua dago bi kultura horien arteko konparazioan, garaien arteko aldeak gorabehera. «Antzekotasunak daude, tresnerian ikus daitekeenez, besteak beste», esan zigun Barrikara egin zuen bisitan. Nazioarteko maila duen zientzialari horrek erne jarri gaitu Uribe Kostari buruzko interes zientifikoaz eta Historiaurreko potentzialaz. Bere bisita, AEBetatik etorrita, gure lurraldearen Historiaurrea ezagutzeko asmoz egin zuen. Egun hartan, Barri-



Barrikara bisita

«Barrika oso leku garrantzitsua da, ibilbide luzea du Historiaurrean eta arkeologian, eta potentzial handia du etorkizunean indusketak egiteko. Besteak beste, Neanderthal eta *Homo sapiens*-en kulturen arteko harremana ezagutzeko aukera dago hemen»

kan barrena ibili ginen, eta Kurtziamendi inguruko aztarnategiak eta silexezko harrobiak erakutsi nizkion. Arkeologo ospetsuenek ikeritutako aztarnategiak zeharkatu genituen, erakutsi nion horietako batzuk Erdi Paleolitoari buruz erakutsi zezaketen ahalmena, non ikusi ahal izan den Neanderthalek Barrika izan zutela biziraupenerako gune bat. Duela 120.000 urtetik 40.000 urtera arte Uribe Kostako ehiztari-biltzaileak izan ziren haiek, eta data horiek arkeologo ospetsuenek Barrikan berreskuratu dituzten aztarnategien hondakinekin egiaztatu dira: José Miguel de Barandiaran, Juan Carlos Quintana, Margarita Muñoz edo Mikel Aguirre.

Zientzialari estatubatuarrek aipatu zuen zaila dela aire zabalean aztarnategiak aurkitzea. Horren harira, azaldu behar izan nion bolondreski lan egin dugunon 40 urteko prospekzio eta ikerketen emaitza direla bertokoak. Horren harira, Fitzhughek azpimarratu zuen ez duela antzeko ezer ezagutu bere ibilbide zientifikoan, eta goraipatu zuen Historiaurrea ezagutzeko denbora eman duen jende ez-profesional hori. Niri dagokidanez, hitz horiek urteotako gure lanaren aintzatespena izan ziren, eta egindako guztia «zientifikotzat eta profesionaltzat» jo zuen. ◀

SAN NIKOLAS IKASTOLA

SANIKOLAS.EUS



San Nikolas IKASTOLA

Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

Zientzia etxeko atarian Riki Mutuberria Zabala

COVID-19aren aurka ekintza sozialak antolatu



Osasun-krisialdi zaila ari gara bizitzen, ondorio sozial eta ekonomiko larriak dituen. Koronabirus berriak sortutako pandemiak hankaz gora jarri ditu gure bizitzak, eta etorkizuna zalantzarria da. Gainera, murrizketa-neurri berriak ez dira nahikoa izaten ari pandemia geldiarazteko.

Herriarrak larrituta daude bizi dugun informazioaren tsunami tekniko-zientifikoaren aurrean; pandemia eraginkortasunez kudeatzeko eza-gutza, baliabide eta tresna barik daude. Bere-ziki larria da kazetari, operadore politiko eta agintarieko mesfidantza, funtsezkoa baita informazio-iturri fidagarriekiko eta erabaki publikoekiko konfiantza izatea.

Beharrezkoa da baita ere herritarrekin komunikatzeko bideak ezartzea; informazio erabilgarria eta fidagarria zabaltzea; uste okerrak desagerraraztea; bizikidetzeta eta erantzukizun partekatuen zentzua sustatzea; eta birusaren hedapena geldiarazteko euste-neurriak sustatzea. Gomendagarria litzateke, halaber, jolasak, sorkuntza eta adierazpen artistikoa eta gizarte-esperimentazioa jarduerak eskaintzea, haurrei, gazteei eta adinekoei beldurra, antsietatea edo axolagabekeria bezalako jokabide arriskutsuak bideratzen laguntzeko.

Hainbat proiektu agertu dira munduan herritarrek pandemia hobeto kudea dezaten: antzerkiak, jolasak, artea, diseinua, komikia, erakusketak, esperimentuak, aurkezpenak, ikus-entzunezkoen produkzioak... Arrakastatsuenetan herritarrek parte hartzen dute, eta eurak dira protagonistak.

Udalek euren baliabideak erabili beharko lituzkete herritarrei honako zerbitzuak emateko: informazio zientifikoa eskaini, informazio-puntuak sortu eta osasun-neurrien gomendioak ematea, besteak beste.

Baina, udalekin lankidetzan, herritarren arretarako eskaintza bateratu bat ere sortu beharko litzateke, online, telefonoa erabilita edo aurrez aurre. Udaletxeko baliabideak erabilita, hala nola web-a, sare sozialak, herritarrentzako arreta-zerbitzuak, komunikabideak, espazioak eta erakunde publikoak, herritarrek ondo informatzeko.

Horretarako, konfiantzazko igorleak erabili beharko lirateke; horrela, medikuntzan, biologian, erizaintzan edo psikologian lizentziadunentzat lana sortuko litzateke. Gainera, posible denean, udalerriko bizilagunak ere erabil litezke, bai kontratupekoak, baita boluntarioak laguntzaile bezala ere.

Hori ez litzateke osasun-zerbitzu bat, pandemiaren ondorioak arintzeko beharrezkoa den gizarte-zerbitzu bat baizik. Mediku-gomendioak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren COVID-19ari buruzko gardentasun-ataritik etorri behar dira, eta komunikazio-estrategiak Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak (FECYT) partekatutako gomendioei jarraitzea komenigarria izango litzateke. Baina, COVID-19 aurkako beharrezkoa den kultura zientifiko eta ekintza sozialaren programazioa ez da zerutik jaitsiko; gure udalek eskaini behar dute. ◀



KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



Bertsoak irudikatuz



ALBE urterik urte
hitza bihurtzen ARTE



Andoni Iriondo Barrenetxea mendarotarrak eta Trino Azkoitia Azpitarte azkoitiarrak Algortako Bertsolari Eskola (ALBE) sortu zutenetik 40 urte pasa ziren iaz, 2020ean. Lehendik ere bazeuden bertsolariak eta plazak Uribe Kostan, baina euskarak momentu hartan bizi zuen olatura igo eta Xabier Amurizaren ideari eutsi zioten. Izan ere, euskara lantzeko eta euskaltzaletasuna zabaltzeko bertsoa tresna eraginkorra izan zitekeela uste zuten, besteak beste. Hala, lau hamarkadotan, bertsolaritzari hainbat kantari eta plaza eman ez ezik, euskararen jauzi-ohol ere bilakatu da ALBE.













«Bulgariarrok oso adeitsuak gara atzerritarrakaz»


IKER RINCON MORENO ►

Joan den abenduan etorri zen Martin Rumenov gurera bizitzera, bertan bizi den txikitako lagun batek gonbidatuta. Iturjin gisa lan egiten du goizetan, baina, arrastietan, Algortako Aldapa auzunean zabaldu berri duen gimnasioan topa dezakegu, bere pasioa den wing chun Txinako arte martzial tradizionala irakasten. Oraindik orain zailtasunak ditu gazteleragaz; dioenez, ondo ulertzen duen arren, kostatu egiten zaio erantzutea. Hala ere, ez du dudarik hizkuntzan trebatuko dela laster, eta, hori lortu ondoren, euskaran murgiltzeko aukera ez du baztertzeko.

Sortzez Varnakoa da Rumenov, Bulgariako ekialdeko herri batekoa, itsaso Beltzari begira. Herri hura oso ezaguna da Europako urregintzako piezarik zaharrenak aurkitu direlako bertan, k.a. 4.200 urtekoak, hain zuzen ere. Dioenez, bulgariarrok oso adeitsuak dira kanpotarrakaz, «eroso sentitzen bagara pertsona bategaz, familiakoa izango balitz bezala hartuko dugu; oso leialak gara gure artean».

Hala, bere herria bisitatzeko gonbita egin dio gura duenari; dena dela, ohar bat egin digu: «Gogoratu, bertan, buruagaz baieztatu edo ezeztatu nahi dugunean, gainontzeko lekue-tan egiten denaren kontrakoa egiten dugu; hau da, baiezkkoa denean, alde batetik bestera, eta, ezezkoan, goitik behera».

Jan-edanari dagokionez, *sarmi* eta *tara-tor* gomendatzen ditu. Lehenengoa aza- edo mahats-hosto batean sartuta dagoen haragia da, hainbat orduz gisatzen dena; bigarrena, aldiz, jogurt, pepino, aneta eta baratxuriz egindako edaria da. Bisitatzeko, aurretik esandako aztarna arkeologikoez gainera, Rumenoven ustez Europako parkerik politena dena gomendatu digu: Morska Gradina. Dioenez, itsasoko lorategia esan gura du izen horrek; hondartzaren ondoan, hiria inguratzen eta babes-ten duen basoa da, eta guztiz babestuta dago: «Ezin da bertan eraiki». Parke hartako oso oroitzapen onak ditu Rumenovek, bertan, bere wing chun irakasleagaz entrenatzen ari zela, gaur egun bere emaztea eta semearen ama dena ezagutu zuelako. ◀



Martin Rumenov Valkov


Nongoa
Varna.

Adina
45 urte.

Zertan dabil
Wing chun irakaslea.

Noiz heldu zinen?
2020ko abendua.

Noiz arte hemen?
Auskalo.



Lurraldea
Bulgaria.

Azalera
110.993,6 km².

Hiriburua
Sofia.

Biztanleria
6.951.482 (2020).

Hizkuntzak
Hizkuntza ofiziala bulgaria da, biztanleen % 85,2ren ama hizkuntza, baina garrantzitsuak dira, halaber, turkiera eta erromaniera. Itsasaldean 12.000 gagauzera hitzun inguru bizi dira.

Moneta
Bulgariar lev.

Lehen/Orain **Algorta, 1991**



ITURRIA: GETXOKO LIBURUTEGIAK



Uribitakora



ALBE
Algortako
Bertsolari
Eskola

TESTUA
Josu Landeta
Egurrola

DOINUA
Semaforoak
gorri ta berde

ARGAZKIA
Hodei Torres

Loreek ezkutatzen dutena

*Eguzki izpiek azala jartzen
dutenean gori-gori,
itsaso urdinak freskotasuna
ematen dio askori.
Aisialdiko amets den giro
gozoko ur eder hori
derrigorrezko ibilbidean
begitantzen zaigu lodi,
eta azpiko barrunbe hotza
bilakatzen da hilobi.*

*Iparra mapan goian da eta
hegoa ikusten da behean.
Bien arteko harresia den
Mediterraneo aldean
milaka lagun dabilta Europa
zaharra jotzeko oldean.
Baina osin beltz ilun horretan,
modu latz bidegabean,
amets ederrak amiltzen dira
modu anker eta ahalgean.*

*Zenbait alditan Europa zaharra
ari gara gu goستن,
eta ideia oker horretan
hamaika gaztetxo hezten.
Gizalegean itxuraz lehena
erraz bihurtzen da azken.
Ohar gaitzen gure ur garbiek
zenbat orban lohi dituzten,
lore ederrok azpiko kaka
ez dute ikusten uzten.*

Josu Landeta Egurrola Bertso-irakaslea

«ALBEk ber plazak ekarri d

Duela 40 urte sortu zen Algortako Bertsolari Eskola, 1980an, euskara eta euskal kultura bitsa bezala hazten ari zen garaian, hain zuzen ere. Ordutik, hainbat izan dira bertatik atera diren bertsolariak eta plazak. Gaur egun, eskualdean ez ezik, Bizkaian erreferentea bilakatu da ALBE, eta lau hamarkada horietan eskola eta bertsolaritza nola aldatu diren jakiteko Paule Loizaga eta Josu Landeta bertsolariak batu ditugu.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ►

ALBEren 40 urteurrena izan zen iaz, nola-koak izan dira ospakizunak? Josu Landeta: 2020ko lehen hilabeteetan nahiko martxa normalean hasi ginen, harik eta martxoan sartu eta etxeratze-agindua etorri zen arte. Momentu horretan, ekintzak eta ekitaldiak berrasmatu behar izan genituen, batez ere, momentu horretarako erronka bat planteatuta genuelako: 40. urteurrena ospatzeko 40 saio, eta beste hainbat ekitaldi egiteko asmoa genuen. Baina, horrelako etxeratze-agindua etorri zenean, zenbat iraungo zuen eta nola eragingo zuen jakin gabe, dena berrasmatu egin behar izan genuen. Denboraren poderioz, saioak egin egin dira, askoz ere modu apalagoan, baina ez gara geldirik egon. Jendea erakarri dugu; beste leku batzuetan egin behar izan dugu, plaza zabalean barik, antzokietan eta leku itxietan; eta neurriak hartuta. Baina, behintzat, ikusita nolako dinamika egon den talde herrikoietan, uste dut eskolak urtea salbatu duela.

Aurten, 2021ean, ekitaldi berezirik egitea pentsatu duzue? Paule Loizaga: Momentuz ez. Bageneukan asmoa aurreko urtean ekitaldi berezi bat egiteko, baina, urteurrena oso baldintzatua izaten ari denez, etengabeko inprobisazio-behar bategaz gabilta.

Oraingoz ez dugu horrelako ekitaldi berezirik aurreikusi, baina ez dugu baztertzan ere.

Paule Loizaga Legarra Gizarte langilea

tsogintzari iztkio batez ere»

Ikusiko dugu nola doazen gauzak hemendik aurrera, eta aurretik geneuzkan asmo horiek badauzkagu mahai-gainean behintzat.

Nola eragin dio pandemiak plazari? J.L.: Esango nuke modu kuantitatiboan asko eragin duela: leku askoz ere gutxiago izan ditugu eta saio kopuruak ere behera egin du. Orokorrean, Euskal Herri mailan izugarria izan da egon den beherakada. Hemen, Uribe Kostan eta inguruan, egia da saio gehienak egin ditugula; Bertso Saio Mundiala egin dugu, baina bestelako ezaugarri batzuk izan ditu: publiko kopuru txikiagoa, adibidez. Eta Portu Zaharrean egiten zen Balkoitik Balkoira saioa lokal batean egin behar izan dugu, *petit comitean*. Esango nuke sentsazio gazi-geza dudala.

P.L.: Formatuaz gain, logistikoki bertso-saioak nola planteatu ere pentsatu behar izan dugu: bertsolariak maskara jarri, kendu, mikrofonoak etengabe garbitu... Kontu handiz ibili behar izan gara etengabe protokoloak betetzeko eta kultura gunen benetan segurua dela bermatzeko.

Zein da ALBEk egiten duen lana? P.L.: Egia da jende askok izenagatik Algortagaz lotzen duela, baina hasieratik helburua bertsolaritza eskualde osora zabaltzea zela esango nuke. Eskualde osoa bertsolaritzaz elikatzea, jendea bertsoaletzea, eremu euskaldun bat eskaintzea eta kulturari leku bat egitea da helburua.

Nolakoak izan dira ALBERen 40 urte horiek? J.L.: Ni hasi nintzenean, bertsolaritza bestelako esparru bat zen niretzeko; ez zen guk egin genezakeen zerbait. Gainera, ni erdi euskaldun-berria naizenez, bertsolaritza niretzako erudituen lekura sartzea bezalako zen. Urteak pasa ahala, gustatu egin zitzaidan, eta ni irakasle nintzen AEK Lauaxeta euskaltegiagaz nuen harremana estua zenez, ibilbide hori ikusi nuen. Harreman horretatik sortu zen harrobia, ikasle edo partaideak euskaltegitik bertso-eskolara sartzen zirelako, eta eus-



kalduntzen zebiltzatenak ere saioetara joaten ziren. Orduan, 40 urte horietan bilakaera bat ezagutu dut, bai kuantitatiboa eta baita kualitatiboa ere.

Kuantitatiboari dagokionez, Fredi Paiak behin bertso baten deskribatu zuenez: «lau bizardun zororen kontua izan zen bertsolaritza». Baina denboragaz hasi ginen sartzen eskola eta ikastoletan, umeen erakartze hori eginez eta bertsozaletasuna pizten. Halako batean, ume horiek nerabe egin ziren, eta eskolara etortzen hasi ziren; hemengo giroak erakarrita. Kualitatiboki, hasieran, fenomeno txikia zen; nolabait lau katu besterik ez ginen; herri txikietan eta mugitzen zen bertsolaritza, eta orduan egin zuen salto hirietara. Ikuspegi edo imajinario hori hiritarra goa egin zen, eta genero aldetik ere aldaketa eman zen emakumeak sartzean; hasiera batean, zale moduan, eta, gero, plazetan ere ikusi ditugu. Harrez gero, bertso-esparru aberatsa daukagu orain, adin guztietako jendea-gaz, umeetatik hasita heldu nagusietara.

Nola ikusten dituzue belaunaldi berriak; nola aldatu dira bertsolariak? J.L.: Hasteko, eskola eta ikastolatik jaso dute bertsolaritza, eta bertso-eskolara datozenean gu gure garaian geundena baino askoz jantziago datoz orain. 15-16 urtegar nahiko jakinda datoz; ni, esate baterako, 22-23 urtegar sartu nintzen, eta adin horregaz zerotik hasita, ondo-ondo bertsoan egitea zer zen jakin barik. Bertsolari batzuk ezagutzen genituen, baina ez geunden sartuta giro horretan. Gazte horiek 23 urte dituztenerako mila buelta ematen dizkio-te plazari. Apur bat itsumustuan egiten joan gara, baina beste erritmo batean, eta beste testuinguru desberdin bat izan da gurea. Gu herri erdaldun batean bizi izan gara, eta herri erdaldunetan gure belaunaldiko errealitatea

Bilakaera

«Hasieran fenomeno txikia zen. Nolabait, lau katu besterik ez ginen; herri txikietan eta mugitzen zen bertsolaritza, eta orduan egin zuen salto hirietara»

Belaunaldi berriak

«Eskola eta ikastolatik jaso dute bertsolaritza, eta bertso-eskolara datozenean gu gure garaian geundena baino askoz jantziago datoz orain»

izan da gaztelaniaz ikasi duenarena, salbuespenak salbuespen, eta euskal-munduan militantziagatik sartu ginen. Orain, gazteek bere militantzia eta afizioa badute, baina eskolatik lanketa eginda dakarte; beste oinarri bategaz datoz.

Bertsolaritza bera asko aldatu da zu hasi zinen egun haietatik? J.L.: Askok aldatu da, bai. Adinaren batez besteko aldetik, adibidez, 80ko hamarkadan bertsolari gazteak bazeuden, baina, orokorrean, adina altutxoagoa zen. Akorduan daukat, eskolan sartu nintzenean, hemen ikusi genuen lehenengo saioan Getxo Antzokira etorri zirela Joxe Agirre, Azpilaga eta Mañukorta. Horietako batzuk hil dira, eta beste batzuk bizirik jarraitzen dute, baina nagusiak dira. Orain, saio bat egiterakoan, genero aldetik neska-mutilen arteko oreka dago, eta adinaren batez bestekoa hogei edo hogeita hamar urteko da. Akorduan daukat saio harez geroztik hasi zela bertsolari gazteen labekada bat ateratzen; eskolan ibilitakoak ziren: Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Maia...

Bertsolaritzan ere gizon eta emakumeen artean parekotasuna lortzen joan da, beraz? P.L.: Nik uste dut gizarteko beste esparru gehienetan bezala, genero ikuspegia gero eta gehiago ari dela lantzen, eta bertsolaritza ere bere horretan dabilela. Ezin dugu ahaztu bertsolaritzaaren historian emakumeak ere egon direla, baina orain dagoen ikusgarritasuna eta lehen zegoena ez da batere antzekoa. Lanketa ari da egiten emakume horiei ikusgarritasuna emateko, eta merezi dutenen izena argitara emateko. Orain, ikusi besterik ez dago plazetan emakume ugari dagoela kantuan, eta nesken harrobi handi bat dago eskolan. Hori seinale ona da, baina lantzeko asko dago



oraindik. Beraz, aldaketa egon da, baina lanketa ere dago egiteko oraindik.

Parekidetasun hori modu naturalean ere eman dela esango zenukete? P.L.: Bertsolaritzan sartzeko orduan adin-txikiko umeetan ez dago hori landu beharrik, kopuru oso berdinetan dabiltzalako, eta esango nuke bertsotan emakume gehiago hasi ohi direla gizonezkoak baino. Bestalde, emakumeoi beti ukatu zaigu espazio publikoa, eta horrek bertsolaritzan ere eragina izan du. Beraz, uste dut hor ere lanketa dagoela: espazio berdina merezi dugula, hain zuzen ere.

Atzetik datozen belaunaldiak nola ikusten dituzue, erreferentzia moduan dituzue? P.L.: Bai, noski. Hor transmisio bat egon da, Josu, edo Joseba Santxo edo Iriondotarrak, eta hasierako urte horietan ibili diren pertsona horiek guztiek beti transmititu izan digute bertso-eskolaren esentzia hori, eta, zentsu horretan, noski erreferenteak izan direla. Orain, guri dagokigu hurrengo belaunaldiei hori guztia pasatzea.

Zein ekarpen egin dio ALBEk bertsolaritzari? P.L.: Nik esango nuke ALBEk bertsogintzari batez ere plazak ekarri dizkiola, eta, zentsu horretan, bertsolaritza bere formatu guztietan sustatu duela. Era berean, esango nuke berritzailea izan dela, eta bidean erreferenteak diren plaza gogoangarri asko utzi dituela. J.L.: Gogoan izan dezagun gu hasi ginenean hemengo bertsozaleatasuna oso txikia zela, eskolan lau katu besterik ez geundela eta hori zabaltzen joan dela. Esango nuke, gaur egun, herrian ez ezik, inguru osoan garela euskal kulturaren erreferente bat. Ikusi besterik ez da egin behar urteotan egon den jende eta plaza emaria.



Eskolak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtero, horien artean, Bertso Jaialdi Mundiala. ALBE

Emakumeen presentzia

«Emakumeoi beti ukatu zaigu espazio publikoa, eta horrek bertsolaritzan ere eragina izan du. Beraz uste dut hor ere lanketa dagoela: espazio bera merezi dugula»

Nolakoa izango da ALBEren 50. urteurrena? J.L.: Uste dut eskola hazten jarraituko dela, belaunaldi berriak badatozelako. Xepelarren bertsoak dioen moduan: «*Naiz hanka bana hautsi, jaioko dira berriak*». Dena dela, beti jarraitu behar da gauza berriak asmatzen, eta uste dut gazteek aukera asko dituztela dinamika berriak sortzeko. P.L.: Uste dut guri ere badagokigula helduen lekukoa hartzea bertso-eskolaren ibilbideari jarraipena emateko. Esango nuke, gainera, orain arteko ibilbidea erabat goranzko joera izan duela, eta, esan beharrik ez dago, hori mantentzen saiatuko garela. Azpimarratuko nuke ertso-eskolaren ezaugarrietako bat aniztasuna dela, eta, hortik abiatuta, ibilbide oparoa etorriko dela uste dut. ◀



Getxoko Portu Zaharrean egin ohi da Balkoitik Balkoira saioa; argazkian 2015eko saioa. ALBE

Erandio Gasolinoaren etorkizuna kolokan

«Ez dakit gasolinoagaz beste bost urte jarraitzeko gai izango naizen»

Oscar Suarezek 30 urte daroatza Erandio eta Barakaldo batzen dituen gasolinoak gidatzen. Ez daki zehatz-mehatz egunean zenbat alditan gurutzatzen duen alderik alde itsasadarra, baina urteotan egindako milia nautiko guztiak zenbatuta, «munduari bira pare bat» izango direla dio txantxetan.

ANDER ZARRAGA ►

Gogoratzen du aitagaz hasi zela ibaian zehar ikatza saltzen, hamabi urte zituela, «adin horregaz ohi-tura zen gurasoak lanean has-tea». Bertan daramatzen hiru hamarkadetan ibaiaren birsorkuntza ikusi duela dio: «Lehen lan asko zegoen lantegi eta ontziolakaz; ibaia oso zikin zegoen, eskua uretan sartzen zenue-nean beltz ateratzen zen. Baina, orain, hori guztia aldatu da». Gasolino gidatzen hasi zenean, 80ko hamarkadan, 18.000 pertsona zeharkatzen zuten ibaia egunero; lau itsasontzi zeuden aldi berean, ertz batetik bestera joan-etorrian. Orain, aldiz, egoera dramatiko bizi dela dio, «nik bakarrik ezin dezaket gasolino mantendu, eta etsita nago; fisikoki eta mentalki ere bai», azaldu du. Pandemiaren aurretik, gogoratzen du udan egiten zituzten turistentzako eta taldeentzako edo Bilbo-ko suak ikustera joateko irteerakaz etekinak ateratzen zituztela, urtean beraien bizimodua mantendu ahal izateko; COVID-19aren ondorioz, baina, hori guztia aldatu da.

Pandemiak zerbitzuari kalte handia egin diola azpimarratu du, eta, itxialdiaren eraginez, lehen, egunero, normalean pasatzen zituen 300 pertsonetatik, gaur egun, 80 ingurura bajatu direla dio. «Eta euria edo eguraldi txarra dagoenean, kopuru hori nabarmen jaisten da, jendea metroan edo kotxean joaten delako». Horregaz gastuak ordaintzeko ere ez duela irabazten kexatzen da Suarez.

Gasolinoak goizeko 05:30etik iluntzeko 21:30era dabilta beharrean, langileak hertz batetik bestera eramaten; gaur egun, ordea, zerbitzu horren etorkizuna desagertzeaz dagoela uste du. «Ez dakit beste bost urte irauteko gai izango garen, ni erretiratu arte behin-



Gasolino XX. mende hasieran hasi zen ibaia zeharkatzen. HODEI TORRES

120

urte daramatza gasolinoak itsasadarren bi aldeak batzen.

1974

urtean eraiki zituzten Suarezek dituen hiru gasolinoak, osorik egurrez egindakoak.

3

minutu hartzen ditu itsasontziak Erandiotik Barakaldora arteko bidea egiteko.

tzat». Dituen hiru itsasontzien mantentzea, erregaia eta beragaz batera lan egiten duen beste marinela ordaintzeko apenas ateratzen dutela dio, eta ez daki noiz arte jarraitu dezaken. Bestalde, Bizkaiko Aldundiak duela gutxi iragarri duen Erandio eta Barakaldo arteko zubiak ere kalte handia egingo diola aurreikusten du, oinez edo bizikletagaz doazen asko bertatik pasako direlako: «Desagertzeko sententzia baten modukoa da».

Suarezek deitoratzen du aurtan ez dutela ia laguntzarik jaso erakunde publikoen aldetik. Momentuz, Erandioko Udalagaz hitzarmen bat lortu dute, eta, horri esker, apirilean bisita turistikoak egingo dituzte itsasadarrean. Gune industrialak, ontziolak eta monumentu ezberdinak bisitatuko dituzte Nerbioi ibaian gora. «Ordu biko bidaiak egin gura ditugu, bai Bilborako norabidean eta baita Abrarantz ere bai. Horregaz, behintzat, mantentzeko nahikoa ateratzea espero dugu».

Erandioko auzo-elkarteakaz eta Barakaldoko Udalagaz ere harremanetan egon direla dio, eta, horrez gainera, umeentzako ibilbideak egiten dituztela jakinarazi du patroiak. «Ez ditugu dirulaguntzak eskatzen; nik lan egin gura dut, eta erakunde publikoen laguntzagaz uste dut egin ditzakegula irteerak, erretiratutako pertsonakaz zein eskoletako ikasleakaz, besteak beste». ◀

Goitibera Antzerkia konpainia *Kasilda. Bukatzen ez den sua*

«Ideia askeen defentsan bizia eman zuten emakumeei omenaldi bat da hau»

IKER RINCON MORENO ▶

Kulturarako garai latzak diren arren, estreinaldiren bat edo beste ikus daiteke han eta hemen. Kasu honetan, Goitibera Antzerkia konpainiak *Kasilda. Bukatzen ez den sua* antzezlanak aurkeztu zuen joan den otsailaren 27an, Sopelako Kurtzio kultur etxean. Aurrestreinaldia izan zen hura, gerora, egoerak laguntzen duenean, «estreinaldi mundiala» egin ahal izateko. Horretaz eta gehiagoz berba egin dugu Saioa Iribarren lan horren zuzendari eta idazleagaz.

Zertan datza obra? Kasilda Hernaez Vargas emakume iraultzailea ezagutzera ematea da gure asmoa. Bere bizitza kontatu egiten dugu, Guda Zibila eta horren aurrekarietan sakonduz. Umorea eta drama bereizten dituen zehaztugabeko lerrotik mugitzen den abentura paregabea da. Ideia askeen defentsan bizia eman zuten emakumeei omenaldi bat da.

Leire Orbe, Aiora Sedano eta Ander Basaldua dira antzezleak. Zein da bakoitzaren papera? Ikuskizun korala izanda, hiru aktoreek hainbat paper jokatzeko dituzte (milizianoak, tropa frankistak...), baina horien artean hiru pertsonaia nagusitzen dira: Kasilda Hernaez (Aiora Sedano), Felix Likiniano (Ander Basaldua) eta Manuel Chiapuso (Leire Orbe).

Hala ere, horiez gainera, bestelako talde-teknikoa ere badago horren atzean. Zelakoa izan da sortze-lana? Ordura arte Goitiberarekin egin dugun muntaiarik handiena da hau, eta jende asko koordinatzeak lan izugarria suposatzen du, egia esan! Baina guztien erantzuna ezin hobea izan dela azpimarratu beharra dugu. Proiektu honetan gaztaroko lagunak berraurkitzeko eta lagun berriekin harremana estutzeko aukera izan dugu, eta hori altxor bat da guretzat.

Zergatik oinarritu zarete Kasilda Hernaez Vargas emakumearen bizipenetan antzerki bat sortzeko? Lanarekin memoria historikoaren atea ireki genuen, eta bide horretan sakontzeko gogoia genuen. Beste aldetik, emakume baten istorioa kontatu nahi genuela argi geneukan, emakumeari ahotsa ematea ezinbestekoa iruditzen zaigulako. Hortik



Sopelako Kurtzio kultur etxean egin zuten aurrestreinaldia, otsailaren 27an. HO DEI TORRES

Antzerki-esperientzia berria

«Agian, 'berria' gehiegi esatea da; baina egia da guk jorratzen dugun antzerkia ez dela hemengo publikoa ohituta dagoen antzerki-mota. Testua lantzen dugu, baina espazioa, akzioa eta mugimendutik abiatuta. Eta, oso maiz, laugarren horma hautsi egiten dugu publikoarekin kontaktuan jarritz».

abiatuta, berehala topatu genuen Kasi, eta bere istorioarekin maitemindu ginen. «Nolatan ez genuen aurretik ezagutzen?», galdera horrek aurretik geneukan bultzada indartu zuen.

Sopelako aurrestreinaldia egin duzue; zelako harrera izan du antzezlanak? Garai hauetan musukoa, distantzia eta gainontzeko murrizketak direla eta, askotan zaila izaten da publikoaren erantzuna irakurtzea. Baina, hala ere, sentsazio onarekin geratu ginen Sopelan egindako lanarekin. Gainera, ondoren jaso ditugun hainbat komentariok ere ideia hori berretsi egiten dute. Oso pozik gaude, egia esan, lekuren batetik zein bestetik, azkenean, lantalde osoaren lana goraiatzeko hitz politikak jaso ditugulako.

Nabaritu duzue udalerrien arteko mugimendu-muga indarrean egon izana? Bai, dudarik gabe! Gure lagun zein lankide asko Sopela eta herri mugakideetatik harago bizi dira, eta horrek gure deialdi-ahalmena asko murriztu du. Hala ere, zorionez, antzokiaren edukiera betetzeko lau sarrera besterik ez ziren geratu saldu barik. ◀

Zinez diot **Lambs of God**

Arkumeak ala sorginak?

Eliza patriarkala, klausura komentua irla galdu batean, eta ipuinak hankaz gora jartzen dituen telesail sorgindu hau ezinbestekoa dugu gaur egun.

HODEI TORRES ▶

Irla galdu batean kokatuta dagoen komentuan, hiru klausurako mojak (ala sorginak?) hogeit bat urte daramatzate irlatik irten barik, eta euren bizitza egiten. Apaiz baten bisita jasotzen dutenean haien bizimodua kolokan ikusten dute, eta istorioa nahasten hasten da.

Espoilerrak ekiditeko, lau kapituluko *thriller* baten aurrean gaudela esan dezakegu, eta protagonistek lan zoragarria egiten dutela haien paperetan azpimarratzekoa da.

Erljioa, sorginkeria eta emakumearen papera historiagaz nahasten duen seriea da hau. Patriarkatuaren elizari kritika egiten diola ikus dezakegu, eta historian erlijioan sartzeko bizi izan ditugun erritu paganoen birmolda-



Lambs of God

Jatorrizko izenburua:

Lambs of God

Zuzendaria:

Jeffrey Walker

Gidoilariak:

Sarah Lambert

Antzezleak:

Ann Dowd, Essie Davis, Jessica Barden eta Sam Reid

Iraupena: 55 min, lau kapituluko telesaila da

tzeari buruzko kritikak ere badaude. Cailleach izena du irla, eta horren jatorria da neguko jainkosa zelta bat. Elizak, geroago, Ines Beltza bezala moldatu zuen izen hori, eta gure mojek goraipatzen duten Santa Ines, horren erreferentzia da. Sasi eta animalien artean dagoen Santa Ines bati otoitz egiten daudenean edo emakume-izenak dituzten animaliei zein santuei buruz hitz egiten dutenean, elizaren patriarkatuari ziztada bat ematea bezala da, historia nork idazten duenaren garrantziaz hausnar dezagun. Ipuin klasikoak kontatzea gustuko dute mojek, baina betiere euren bertsioak, ipuinen bukaerak edo pertsonaiak beren bizipenakaz nahastuta.

Hori guztia paisai eder eta natura basatian murgilduta dago, Australian eta Tasmaniako irla batean grabatuta baitago. Seriearen argazkilaritzak eta musikak aipamen berezia merezi du baita ere, argiek eta koloreek sortzen dituzten giroak izugarriak direlako historia bitxi eta erdi sorgindu honetarako. Musika eta soinua, hain gordin batzuetan, oso ondo gidatuta daude, eta laguntzen dute serie polit hau. ◀

Irakurrian **Basa**

Emakume baserritarren mitoa apurtuz

Osasun krisi malapartatuaren gorabeherak egon arren, hor egon gara irakurle taldeok, ekinean, literatura-haria galdu barik.

JOKIN DE PEDRO ▶

Gure taldean irakurri dugun eleberri batez arituko naiz: *Basa* du izenburu. Idazlea, Miren Amuriza, bisitan etorri zitzaigun gainera, eta solasaldi interesgarria eta atsegina izan genuen.

Liburuaren azalari begiratzen dionak, izenburua nahiz andre saskil basurdeburuduna ikusirik, erratu barik igarriko dio kontakizunaren mamiari. Izan ere, Altzerrekako emakume zaharra, Sabina izenekoa, andre basa, egoskorra eta haitza lako gogorra da. Senitartekoeekin, kanpokoekin, munduarekin da gogorra, zurruna, arrastoan sartu ezina Sabina Gojenola. Idazleak emakume baserritarren prototipo tradizionala jo ta triskatu egin du, horrelako *superwoman* hezigaitza aurrean



Basa

Erilea: Miren Amuriza

Argitaletxea: Elkar

Urtea: 2019

Orrialde kopurua: 128

Jatorrizko hizkuntza:

Euskara

paratuz. Mirenek nahita saihestu du, nahita alde egin du baserriko giro eta emakume idilikoetatik, deusezten ari den etxalde batean bizi den andre zahar gaixo hori kokaturik. Txomin Agirrerren Garoa klasikoa irakurri duenak gogoan izango du bertako emakume baserritarren izaera apala, orekatzailea, onbera... Eskerrak idazle berak itsas giroko Kresalan Tramana eta Brix andre arrain saltzaile lotsabako ahoberoak (eta zoragarriak) elkarriketa bizian jarri zizkigula. Zerikusirik ez Garoako Malenekin, mutilaguna utzita mojatarako asmoa erakutsi zuena. Miren Amurizak marraztu digun emakumea, beraz, irudi-apurtzailea da; baina baserriaren, etxaldearen marrazkia ere ezohikoa da, antierromantikoa eta batzuetan latza eta goibela ere bai.

Indarra du Mirenen kontaerak, bertsolariaren hitzezko zehaztasuna eta aberastasuna. Hizlari moduan jariora eta trebezia erakustez gainera, ekarpen interesgarriak egin zizkion gaiari, gure mesederako. Eleberrirako hautatu duen hizkuntza-soinuarekin loturik, hotsezko irakurtze-ariketa polit bat eskaini digun. ◀

Arene 6

«Aspaldiko taldeen *mix* antzeko bat gara»



TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO
ARGAZKIA: ARENE 6 ▶

Jon Maiak bere garaian esan zuen bezala, berdeetan berdeen bizileku, hamarkadetan bertatik ehunka aldiz pasa eta ezin negona sentiarazi diguna. Ghetto hori topa dezakegun kalearen izena daraman gazte-taldea izango da gurean oraingoan.

Arene 6, Algortako punk eta oil!-aren garairik baxuenean jaio izanda, zelan sortu zen proiektua? Taldea 2019ko irailean sortu zen, Erasoka taldeak jotzeari utzi zionean. Ibon eta Iñaki musikaren munduan jarraitzeko gogoe-kin zeuden, eta proiektu berri hau sortzea erabaki zuten. Bi gitarra- eta baxu-jole bat behar zituzten taldea osatzeko. Jokin (Smoking Barrels) eta nirekin (Koldo, Garrasika) hitz egin eta entseguekin hasi ginen. Beranduago, kua-drilla bereko Josu sartu zen gitarra-jole moduan, baina, urtebetera, taldea utzi eta Jon sartu zen bere ordeiz. Esan dezakegu aspaldiko taldeen *mix* antzeko bat dela. Kar kar kar!

Pandemiaren aurretik zuen zuzeneko bategon egon ostean, musika-mota punk eta oil!-tik aldentzen zela iruditu zitzaizkizun. Hala dela uste duzue? Egia da, punk eta oil!-aren influentzia handiak ditugula, baina, orain-



Arene 6

«Ondo legoke algortarrok hain arrotza sentitzen dugun helbide horretan dagoena egon beharrean entsegu-lokalak egotea, Babes Ofizialeko Etxebizitzak egitea edo dena delakoa»

goan, beste estiloetako errekurtsuak erabili ditugu; taldekide bakoitzak dauzkan gustuak nahasten ditugu. Abesti metalero eta ilunagoak egiten ditugu, besteak beste.

Eguneroko neurri murriztaile guztiekin, zelan moldatzen ari zarete taldeko entseguak eta abarrak aurrera eramateko? Egia da zailtasun nahikotxo eduki ditugula; guk beste udalerrri baten entseatzen dugu eta, segurtasun-neurriengatik, entsegu batzuk egin gabe geratu dira. Hala ere, audio eta bideoen bitartez gauza nahikotxo aurreratu ditugu.

Esango nuke Arene 6 Algortako kale baten izena dela. Bertan entseatzen al duzue? Kar kar kar! Lehen esan bezala, beste herri batean daukagu lokala. Ondo legoke algortarrok hain arrotza sentitzen dugun lekuan dagoena egon beharrean entsegu-lokalak egotea, Babes Etxebizitzak egitea edo dana dalakoa. Edozer; dagoena kendu eta Arene 6k duen konnotazio negatiboa aldentzeko, gurea den zerbait sortzea, herriarentzako.

Ba al duzue epe laburrerako proiekturik? Abesti nahikotxo ditugu, eta udan, egoerak laguntzen badu, disko bat grabatzeko asmoa dugu. Laster sareak martxan jarriko ditugu eta gure berriak jarraitu ahal izango dituzue. ◀

Jabier Fuertes «Txapas» Troka Abenturako gerentea

«Trokak ez ditu bere ateak ixten; saiatuko gara bizirik mantentzen»

Abentura eta esperientzia kontaezinak eskaini ondoren, Gorkizko Troka Abentura enpresak ez ditu bere egunik onenak bizi; egoera ekonomikoak itolarrian utzi du.

ANDER ZARRAGA ►

Jabier Fuertes *Txapas* Troka Abentura enpresako gerenteak aitortu du egoera ekonomiko zaila bizitzen ari direla, eta ezin izan dietela pandemiak eragindako galera ekonomikoari aurre egin. Hala ere, Gorkizko Turismo-aktiboa eta naturagaz lotutako hainbat abentura-kirol zerbitzu eskaintzen dituen enpresa bizirik mantentzen saiatuko direla azpimarratu du. Itxiko dutena da Gorkizko aterpetxea, eta horretatik eratorrita egiten zituzten ekintzak eskaintzeari utziko diotela zehaztu du *Txapas*ek: «Bestelako zerbitzuak eskaintzen jarraituko dugu».

Gerenteak aitortu du oso erabaki konplikatu eta gogorra izan dela hori. Aurreko urtean, galera ekonomiko larriak izan zituztela azaldu du, eta aitortu du ez zutela lortu beraien esplotazio-kontratutik beste era bateko kudeaketa bat egitea. Izan ere, gairitu ezin zituzten hainbat gastu zituztela azpimarratu du: «Mantentze-gastuak; kanona (hilabete batzuetan kendu genuen arren, ez dugu deneratzen lortu, eta orain berriro jarriko zen martxan); langileen kostuak, ABEEEn (Aldi Beterako Enplegu Erregulazio Espedienteak) egon arren gastuak suposatzen dutelako; enpresa berriro martxan jartzekoak... Eta hori guztia ezer fakturatu gabe». Azkenean, kiebira eragozteko, gerente moduan zerbaite egin beharra zuela aitortu du pena handiz.

Pandemiari aurre egiteko hartu diren neurrietan kontraesan handia egon dela uste du. Izan ere, konfinamenduaren ondoren, turismo-aktibo berba inoiz baino gehiago entzun den arren, eta ezarritako neurri guztiak hartu



Troka Abenturak uretako zein lurreko ekintzak eskaintzen zituen. HODEI TORRES

Etorkizuna

«Oraindik ez dakiguzer, non edo nola, baina Troka hor izango da bere esperientziarekin»

Laguntzak

«Jasotako laguntzekin ez dugu ordaintzerik izan administrazioek kobratzen digutena»

eta izugarritzko lana egin ondoren, azkenean, agertoki txarrenagaz egin zuten topo: «Abuztu amaieran hartu ziren neurriak eta egoera zein zen kontutan hartuta, ixtea eta udaberrira arte itxarotea pentsatu genuen. Baina, egoera ez da hobetu, eta gure baldintza ekonomiko larriaren ondorioz erabaki hau hartu dugu».

Trokak aterpetxearen ateak itxi dituen arren, lanean jarraituko dutela aurreratu du *Txapas*ek. Izan ere, berarentzat proiektu hori bizi osoko lana izan da: «Oso pozik nago egindako lanagatik, eta, batez ere, izan ditudan langileengatik; oso talde ahaltsua izan dut, eta, azken finean, hori da niretzat garrantzitsuena: pertsonak». ◀

Ane Etxebarria Leioako Emakumeak taldeko kapitaina

«Emakumeen futbolak presentzia behar du»

Emakumezkoen futbolak azken urteetan eskualdean izan duen gorakadaren lekuko eta erantzule da Ane Etxebarria jokalaria. Orain, belaunaldi berrien entrenatzailea ez ezik, erreferentzia ere bada.

ANDER ZARRAGA ►

Getxoko Andra Mari taldean hasi zen futbolera jokatzen, mutilakaz batera; baina, kategoriaz igotzean, nesken talde bat bilatu behar izan zuen, eta LH 6. mailan Leioako emakumeen futbol eskolara joan zen. Hurrengo 20 denboraldiak Leioan eman ditu, jokalaria, entrenatzaile eta koordinatzaile-lanetan.

Nolakoa da Leioako Emakumeak taldea? Orain, Euskal Ligan jolasten ari gara, eta, orokorrean, talde gaztea dugun arren, jokalaria oso maila alturekin datoz. Berri asko ere etorri dira, bai gure harrobetik, eta baita kanpotik ere, baina oso talde ona sortzea lortu dugu, futbolaren ikuspuntutik eta talde harremanen aldetik ere, eta hobetzen ari gara.

Duela urte batzuk Bigarren Mailara igo zinenen. Taldeari bultzada eman zion horrek? Bai, 2015/2016 denboraldian igotzea lortu genuen, eta, agian, orain ditugun jokalariek ordukoak baino «kalitate» gehiago dute. Baina, urte horietan, oso batuta geunden, kuadrilla handi bat ginen. Azkenean, hori guztia ikus-tean jendea etortzera animatu zen, edo, behintzat, taldean gelditzera. Adibidez, orain nirekin jolasten duten batzuk txikitatik entrenatu ditut, eta horietako asko orduan etorri ziren.

Zu hasi zineko garaiakaz konparatuta, nola datoz orain neska futbolari gazteak? Askoz hobeto; futbolaren inguruan askoz gehiago dakite. Teknikoki eta taktikoki maila altuagoa dute, guk geneukarakin konparatuz; orain, kumeetan daudenek ez dute zer ikusirik. Maila asko hobetu da, eta emakumeen futbola ere askoz gehiago ari da entzuten;



Ane Etxebarriak 20 urte daramatza talde leioaztarrean jokatzen. HODEI TORRES

Ereduen bila
«Txikitan nire ametsa Athleticen jolastea zen, baina, orduko hartan, mutilen taldean jolastea zen aukera bakarra. Orain, aldiz, emakumeen taldea eredugarria da»

Athletic ere erreferentzia moduan egoteak indarra ematen dio. Orain, gainera, entrenatzaileak ere gero eta hobeagoak dira, eta emakumezkoen futboleant sartzen animatzen dira.

Uste duzu emakumeen futbola badoala bere lekua hartzen? Astiro-astiro badoa garrantzia hartzen, eta hori nabaritzen da orain dela urte batzuekin konparatuz. Ni Leioara etorri nintzenean hau zen neskek osatzen zuten talde bakarra, eta bi urte gutxiago zuten mutilen aurka jolasten genuen. Orain, berriz, hainbat talde daude.

Zer uste duzu falta zaiola emakumeen futbolari? Adibidez, babesleak lortzea oso zaila da; azken finean, hortik sartzen den dirua garrantzitsua da, baina ia ezinezkoa da lortzea. Prentsan eta horrelakoetan garrantzia gehiago eman behako litzaioke ere, Teleberrian eta horrelakoetan agertzen den emakumezkoen kirolen presentzia oso txikia delako. Demostatuta dago horren alde egiten badugu emakumeen kirolak ere gora egingo duela. ◀

Kutxa teknologikoa **Itzuli+ itzultzaile neuronalaren luzapen berria**

Edozein webgunetik euskarazko eta gaztelaniazko testuak itzultzeko

IKER RINCON MORENO ▶

Eusko Jaurlaritzak Itzuli+ luzapena atera du, Itzuli itzultzaile automatikoari lotzeko. Tresna berri honek Interneteko zenbait baliabide leku bakar batean batu ditu: Itzuli itzultzaile neuronal, hiru hiztegi (Elhuyar, Morris eta Collins), euskarazko Wikipedia eta ahots sintesia. Firefox eta Chrome nabigatzaileetan luzapen gisa funtzionatzen du, eta automatikoki lotzen da itzultzaile neuronalagaz. Oso erabilerraza da: webgune bateko testu-paragrafo bat edo gehiago aukeratu, Itzuli+ ikonoari sakatu, eta itzulpena eskainiko du. Beste aukera bat da ikonoari klik egitea eta agertuko den kutxan gura dugun testua idaztea, ondoren tresnak itzul dezan. Honako hizkuntza-konbinazioak onartzen ditu: euskara-gaztelania, euskara-frantsesa eta euskara-ingeles, eta alderantziz. Adimen artifizialetik abiatutako eta herritarrei zuzendutako Eusko Jaurlaritzaren lehenengo proiektua da hau. Sortzaileek diotenez, Itzultzaile neuronal 20 urtez bildutako itzulpen-memoriak erabili dira tresna sortzeko, eta, horri esker, oso datu-base terminologiko eta linguistiko zabala lortu da. Oso aukera ona itzul-pengintzan dabilzanentzat, dudarik gabe. ◀



Horoskopoa



Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Buruko minaz zabilta eta ez dakizu zer izan daitekeen. Altxa zaitez sofatik eta ingurura begiratu; utzi garagardoak eta edan ur gehiago.



Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Arazoei behar baino garrantzi handiagoa ematen badiezu, azkenean zoratu egingo zara. Jaitsi erritmoa, eta pentsatu ondo zer gura duzun.



Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Urrun dituzun familiako kideakaz askotan gogoratzen zara. Zergatik ez diezu noizean behin idazten? Teknologia lagun dituzu orain!



Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Teknologia berriak ez zara ondo moldatzen; lasai, denboragaz eta pazientziagaz dena ikas- teko aukera izango duzu.



Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Profesionalki izugarrizko aurrerapausoa eman- go duzu, eta horrek egonkortasuna sortuko du zure inguruan.



Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Batzuetan hobe da isiltzea eta arrazoiak besteei ematea, baina zuk ez dakizu ez bata ezta bestea ere egiten.



Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Badakizu zure umorea eguraldia bezain alda- korra dela, eta liskar bat baino gehiago izan dezakezu umore horren kontura.



Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Aspaldian ikusi ez duzun lagun baten bisitak asko poztuko zaitu. Ahaztuta dituzun tokiak eta pertsonak gogoratzeko aukera izango duzu.




Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Inoiz baino indartsuago zaude, egunero korrika egiten zabilta. Tabernak itxita zaudela ohitura hori hartu zenuen; bada, lasaitu zaitezke orain.



Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Askotan esaten duzu aspertuta zaudela, baina ondo pentsatu: zerbait egin duzu azkenaldian egoera hori konpontzeko?



Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Denetan azkarrena zarela erakutsi duzu sarri, baina azkarrena izateak ez du esan gura adi- mentsuena zarenik.



Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Txikitako beldurrak barru-barruan dituzu orain- dino. Bada garaia horiek gaingitu eta zeure benetako izaera garatzen hasteko.

Euskararen baratzea... ezagutuz aldatzea! Joseba Santxo

Sasieskola

L ehengoan gure eskualdeko mutil **berdingo** bati haxe entzun nion: «gaur ezin da **pellarik** egin». **Esapideaz** galdetuta, erantzun zidan ohiko erabilera zela institutuko berbakeran, eskolan egindako hutsa adierazteko; «pira egin» ere erabiltzen zela, baina ez hainbeste. Hori D eredu batean, pentsa!

Kontu bitxia. Izan ere, «**hacer pira**» ohiko esamoldea da gure inguruko gaztelanian (Kataluniakoan «**hacer campana**», edo Galiziakoan «**latar**» diren moduan), baina «**hacer pellas**» Madril aldeko gaztelaniaren erabilera ei da. Globalizazio linguistikoa zer den! **Pella** basazko bolari esaten bide zaio, eta **agi denez**, behinola **seinak** gogotsu ibili ohi ziren, eskolara barik, horrelako jaurtigaiak elkarri botatzen. Datu bitxia: Deba arroko gozogintza tradizionalan **pellak** esne torradak dira! (opilen egikeragatik, seguru antzean). **Pella** berba latinetik datorke: **pila** (pilota)>**pilula** (pilotatxo)>**pella**.

Euskararen, berriz, erabilera eder bi ditugu, gastronomiarekin erlazionaturik bi-biak (**hobe ez!**) eskola huts egitea izendatzeko. Piper egin da beharbada zabalen dabilena. Bitxikeria moduan esango dugu Nafarroako Berriobeitin, kasurako, gaztelaniaz «**hacer pimienta**» erabiltzen omen dela. Ez dakigu hemen zertan jarduten zuten antzinako eskola umeek zehazki, lokuzio horri gagozkiola: piperrak batzen, piperrak pototan sartzen edo piperrak hausten. Badakigu, oster, orduko estudiante tunanteek sasiartearen topatzen zutela ikastetxean lortzen ez zuten atsegina, masustak janez, seguruenik, antzinako **esalege** egoki batek argitzen digunez: «Eskola umeak sasiz sasi, asko jan eta gutxi ikasi». Eta hortik **sasieskola egitea** esamolde txit egokia. Uxela gure neska-mutilek eskolara joaten diren sarritasunaz **balera-bilte** esakera eder hori (ezezkoan, ahal dela)! ◀

Berba azoka

Berdingo

Ertaina, altuera ertainekoa. Berba ezaguna da gure eskualdean, eta gaztelaniazko **mozuela**, **mozalbate** berben zentzua dauka.

Esapide

Zerbait berezia adierazten duen hitza edo hitz multzoa. Sinonimoak: esamoldea, lokuzioa.

Agi denez

Gure eskualdean «aiez» esaten da.

Sein

Ume, haur. Gure eskualdean «señe» esan ohi da.

Hobe ez!

Zelan ez! Nola ez! Gure eskualdean, «hoba ez!» edo «hoba!» erabiltzen da ahoz.

Esalege

Berba hau ez duzue Euskaltzaindiaren hiztegian topatuko, han ez baitaude oraingoz erabil daitezkeen hitz guztiak jasorik. Orotariko Euskal Hiztegia, berriz, bai ageri da, gure eskualdean jasota erretrau esanahiarekin, hau da, arbasoengandik jasotako esaera. Sinonimoak: esakune zaharra, esaera zaharra, erretraua, atsotitza (Oihenartek asmatua), erran zaharra, zuhur hitza, erranairua...

Sasieskola egin

Eskolan edo eskolara egindako hutsa. Adibidea: «Hamaika sasieskola eginikoa naiz ni!».

Balerabilte

Erabiliko balute.




03 DIAFRAGMA

Diafragma eta eremu-sakonera

Hondoa eta lehen terminoa banatzeko aukera ematen digu diafragmak, edo paisai batean den dena garbi ikusi ahal izatea. Horregatik, ondo ulertu behar dugun baliabidea dugu irekidura.

Diafragma

Objektiboan kokatuta dago, eta mota ezberdinetakoak daude, irekidura anitzekoak eta haien pala kopururaren arabera, desenfoke ezberdina eskeintzen dutenak. Irekidura handiko objektiboek argi gehiago pasatzen uzten dute, baina garestiagoak dira baita ere.



Gure irisa

Obturadoreari buruz hitz egin genuen aurrekoan; denbora kontrolatzen duela jakinda, orain ikusiko dugu diafragmak sentsoreak jasoko duen argi kantitatea kontrolatzen duela. Zenbat eta irekiago izan, orduan eta argi gehiago pasako da, eta zenbat eta irekiera txikiagoa izan, orduan eta argi gutxiago. Gure begietan bezala, argi gutxi dagoenean, irisa zabal-tzen da, eta argi gehiago dagoenean itxi.

Hiru alderdiak

Diafragmarekin oinarritzko hiru alderdi kontrolatuko ditugu:

- 1- Sentsorerera heltzen den argi kantitatea.
- 2- Eremu-sakontasuna.
- 3- Irudien gardentasuna.

Irekiduraren pausoak

Abiadurarekin bezala, pausotan neurtzen da irekidura. Pauso bakoitzak argi gehiago edo gutxiago sartzen utziko du, eta kamera bakoitzean ezberdin markatuko dira pauso horiek; izan daitezke osoak, erdiak edo herenak.

«f» pausuo gisa izendatzen dira, beheko irudian ikusi ahal duzuenek. Hauexek dira pauso osoak:


f/1.4 - f/2 - f/2.8 - f/4 - f/5.6 - f/8 - f/11 - f/16

eta hauek herenak:

1.4 - 1.6 - 1.8 - 2 - 2.2 - 2.5 - 2.8 - 3.2 - 3.5 - 4 - 4.5 - 5 - 5.6 - 6.3 - 7.1 - 8 - 9 - 10 - 11 - 13 - 14 - 16



Diafragma eremu-sakoneran zelan eragiten du?



Ez nahastu!

Hau da argazkilaritzan nahaste gehien sortzen duen elementua, irekidura handiak (f 2.8, adibidez) ez daukalako zenbaki handirik, txikiak baizik.

Ezkerreko irudian ikusten duzuenek, f 1.4 irekidurak argi asko pasatzen utziko du (iris oso zabal bat bezala) eta f 16 aldiz, oso argi gutxi. Oso garrantzitsua da erlazio hau ondo barneratzea: irekidura zenbaki txikiek (f 1.4, f 2.8, f 3.5) argi gehiago pasatzen utziko dute, eta zenbaki altuek (f 11, f 16, f22) oso argi gutxi. Orokorrean, esaten da:

- f 2.8 diafragma irekia da.
- f 5.6 diafragma ertaina.
- f 11 diafragma itxia.

Argiarengan eragina

Pausoen erregela kontutan hartuta, jakin behar dugu pauso bat ixten dugunean (f 2.8-tik f 4-era) %50 argi gutxiago sartuko dela sentsorera, hau da, argia erdira murriztuko dugula. Beraz:

f zenbaki txikiagoa - argi gehiago
f zenbaki handiagoa - argi gutxiago



Irekidura eta eremu-sakontasuna

Aurrerago sakonduko dugu eremu-sakontasunaren kontuan, baina, oraingoan, goiko taularekin lagunduta, ikusiko dugu diafragma zelan eragiten duen.

Eremu-sakonera fokuratze-puntuaren aurretik eta atzetik garbi agertzen den argazkiaren kantitatea da.

Irudi batzuek eremu-sakonera txikia dute (beheko argazkia adibidez), eta hondoa erabat desenfokaturik dago. Beste irudi batzuek, eremu-sakonera handia dute, non, lehen terminoa eta hondoa erabat garbiak diren (ezkerreko paisaian bezala).

Eremu-sakonera txikia lortzeko diafragma irekiak erabiliko ditugu (f 1... f 3.5) eta aldrebes, eremu-sakonera handia lortzeko (paisaien irudietan adibidez) diafragma itxiak (f 8...).

Beraz, diafragma irekiak hondoa desenfokatzeko aukera asko emango dizkizu, eta beste baliabide artistiko bat bezala erabiliko dugu.




Hurrengo hilabetea:

ISOa: sentsibilitatea eta esposizioa.

Hirukira olgetan


© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:



Zazpikoa

Aurkitu
bi zomorroen arteko
7 aldeak.



1



2



3



4



5



6




7



8



9



Itzala

Zein da zomorro itsusi honen
itzal zuzena?

Oinutsik

Ehunzango gaixo honek oinetakoak falta ditu. Marraztuko al zenizkioke katuska polit-politak lokatzetan sartzeko?



Zein arraio!

Maripurtzil bihurri horrek zomorrotxo bat sartu nahi dio lagun bati patrikan.
Ea asmatzen duzun zein aukeratu duen:

Errepikatuta dago baina ez da ugariena / Ipurdirik ez du agerian / Ez du eztenik, ezta tronparik ere / Ezin du hegan egin / Sei zango ditu / Aho zabalean hortzik baduela badakigu, baina ez zaizkio ikusten / Oso bista aparta duela esan liteke.

Nolako balantzea egiten diozu pandemiaren urteurrenari?



BENANCIO MONTAÑO
PLENTZIA

Egia esan, hainbeste hildako ikusita izu apur bategaz bizi izan dut; familian zerbait gerta zitekeen beldurragatik erne ibiltzen saiatu naiz. Bestalde, lanean ere eragin dit, lan gutxiago izan dudalako.



SANDRA MURCIA
GORLIZ

Nahiko aspergarria eta tristea izan da, murrizketengatik eta kaleak hain hutsik ikustea goibela izan dela iruditu zait. Hala ere, lan gehiago izan dut, beraz, dena ez da hain txarra izan; nire kasuan ez behintzat.



MANUEL JESUS NAVAS
GORLIZ

Nahiko txarto egia esan; maskaragaz gogaituta nago, azken finean, lanean ere erabili behar dudalako, eta egunean ia 24 ordu pasatzen ditudalako horregaz jarrita. Hala ere, lanean, behintzat, ez dugu arazorik izan lan-karga asko igo zaigulako.



AITOR CRESPO
PLENTZIA

Oso gogorra izan da. Irakaslea naiz eta ikasleak txarto ikusten ditut, eta, hasieran, etxean egon ginean ere oso gogorra egin zitzaigun. Hala ere, ikasturtea salbatzea lortu dugu, eta esperantza daukat uste dudalako laster dena bukatzen joango dela.



JON GURREA
PLENTZIA

Kontutan izanda besteen egoera nahiko zaila izan dela, ni nahiko ondo nago, ezin naiz kexatu; ez dut arazorik izan ez lanean ezta familian ere. Hala ere, kokoteraino nago, eta itxaropena daukat udaberrian kontu guztia bukatzen joatea.



OLATZ NICOLAS
PLENTZIA

Hasieran, denak bezala, datorrenera egiten zara, ez dakizulako zer gertatuko den. Baina, orain, astuna egiten ari zait, batez ere mugikortasun-murrizketengatik, ezin gaitezkeelako egon familiagaz, lagunakaz... Nekatuta nago, eta oso luzea ari zait egiten, eta uste dut txertoak ez duela dena konponduko.



NEREA TXAPARRO
PLENTZIA

Orokorrean, nire bizitza ez da asko aldatu etxean aritu garelako lanean, baina gehien bat gurasoekin nabaritu dugu, lehen askoz gehiago ikusten genituelako. Nik konfiantza daukat gauzak hobetuko direla, baina ez dakit zer gertatuko den.



JUAN MARI VILLAVERDE
PLENTZIA

Niri ez dit asko eragin, etxean pasatu dut, seme-alabakaz eta animaliakaz; ez zait bizitza asko aldatu. Bakarrik nabaritu dut oporrak mugatuagoak izan direla. Hala ere, oso aspertuta nago albisteengatik, eta normaltasunera bueltatzeko gogo asko ditut.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa Non dago?

Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko bi ikuskizunetako batez gozatzeko sarrera bikoitzak irabaz ditzakezu

Bi emanaldietako batera joan gura baduzu, martxoaren 10a (eguztiena) baino lehenago bidali erantzuna HIRUKAren webguneko zozketen atalera (zein ikuskizunetarako sarrerak gura dituzun adierazi) :
• www.hiruka.eus/zozketak




Sariak

Biz hitza



Euskara batuaren historia ezagutu ezazu dantzaren bitartez, martxoaren 13an, 19:00etan, Getxoko Muxikebarri Antzokian.

Losers-Galtzaileak



Aitziber Garmendiak eta Jon Plazaolak antzeztutako ikuskizuna, martxoaren 20an, 19:00etan, Getxoko Muxikebarri Antzokian.

Zozketa

Errigoraren otzarak eskura!

«Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura» lemagaz, bueltan dator Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko Errigoraren egitasmoa. Haien ekimenez, otzara-mota bi ditugu.

Zozketan parte hartu gura baduzu, martxoaren 28a (domeka) baino lehenago eman izena HIRUKAren webguneko zozketen atalean:
• www.hiruka.eus/zozketak (adierazi zein otzara-mota irabazi gura duzun)



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.





Etxean jaso nahi baduzu
egin zaitez
HIRUKAlagun!



944 91 13 37 | 688 81 23 68
administrazioa@hiruka.eus